

ELKARRIZKETA: GUIOMAR MENDIZABAL • ESPERIENTZIA: ARTE ESZENIKOAK HAURREN ESKURA • GALDEIDAZUE: PAKI ARBE-AITOR MARTXUETA • MENDUKILO LEIZEA • ATZEKO ATETIK: MIREN AGUR MEABE

hh
hik hasi

121


4 EURO • 2007KO URRIA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA



Hiriak eta herriak
etengabeko heziketa eragile

ELHUYAR HIZTEGI BERRIA!

euskara-ingelesa
english-basque



Ederra
hizkuntzak
jakitea!

Tumatxa,
hi!



elkar

ELHUYAR
edizioak

aurkibidea



8
gaia

HIRIAK ETA HERRIAK ETENGABEKO HEZIKETA ERAGILE

Hiriak berak herritarrak hezi ditzake. Horretarako, hirigintzan, kulturean, osasunean, ingurumenean, zerbitzuetan... heziketari eman behar zaio lehentasuna. Horretan hasiak daude hiri eta herri batzuk.



16
elkarrizketa

GUIOMAR MENDIZABAL

Ikasketetan arazoak dituzten hurrekin egiten du lan pedagogo eta irakasle honek. Laguntzeko modurik onena arazoaren kausetara jotzea dela dio, ez irtenbide farmakologikoei heltzea.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

**HIRIAK ETA HERRIAK ETENGABEKO
HEZIKETA ERAGILE**

16 elkarrizketa

GUIOMAR MENDIZABAL

24 esperientzia

Arte eszenikoak haurren eskura
Bilboko Kafe Antzokian

26 ekarpena

Miguel Gonzalez: "Alboanen unitate didaktikoei kanpo zorraren gaia modu simple eta ulerterrazean lantzen dute"

30 galdeidazue

Nola antolatu tutoretza orduak? Zer egin?
Paki Arbe eta Aitor Martxueta

33 berriak

40 nora joango gara?

Mendukilo leizea

Seigarren kontinentera bisita

42 Atzeko atetik

Miren Agur Meabe

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 . Fax: 943/ 372 154; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Erredakzio burua: Ainhoa Azpiroz. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Miren Guilló eta Olatz Lasagabaster. Erredakzio batzordea: Mikel Estonba, Mari Karmen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Kepa Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Matilde Sainz eta Pruden Sudupe. Administrazioa: Arantxa Goiburu. Diseinua: TRAM•Graf!k. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Donostia. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2007-IX-24). Kopurua: 3.500 ale.

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

Harpidetza orria



hik hasi_k
zure parte-hartzea
ezinbestekoa du,
harpide zaitetz!
50 euro urtean

Prezio horren barruan
10 aldizkari, ale monografikoak
eta Euskal Herriko baliabide
pedagogikoen gida.
Horrez gain, prezio bereziak
Udako Topaketetan eta
argitararaten ditugun
gainontzeko materialetan

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena

1. Deitura

2. Deitura

Telefonoa

Helbidea

Posta Kodea

Herria

Herrialdea

Lantokia

Lantokiaren herria

IFZ-NAN

Posta elektronikoa

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

hik hasi Euskal heziketarako aldizkaria
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua
20018 DONOSTIA. GIPUZKOA
Tel: 943/37 14 08 Faxe: 943/37 21 54

HARPIDETZA SARIAK
(BEZ barne) 50 euro

editoriala

urria

Estatu dekretu baten bidez onartuagoa geratu da Hego Euskal Herriko andereño historikoen lana



Europatik, estatuetatik, Nafarroa eta EAetik ildo berriak datoz hezkuntzan aritzeko. Gaitasunen lanketa omen da egiteko nagusia egungo eta etorkizuneko herritarrak ongi prestatzeko.

Batzuetan, ezagutzen dugun hura betidanik horrela izan dela iruditzen zaigu.

Memoria historikoa oso laburra dugu, gero eta laburragoa beharbada, eta ahaztu egiten zaigu hain egoera ilunean, gogorrean, beste estilo bateko eskola ereduak ezarria zegoenean, andereño batzuek nolaz zuten herriaren erraietatik eskola berria, herriz herri eraikitako ikastolak.

Halako garai zailetan hainbat lan egindako andereño haiek ere indako haziak, orduan txikia iruditu arren, lortu dute gaur egun gure inguruan ikus dezakegun fruitua.

Hazi horrek fruitu eder eta on asko eman ditu, zalantzarik gabe, baina ez ditu nahi adina eman. Askok falta da egiteko oraindik, Euskal Herriko ikasleriarren erdiak besterik ez baitu gure hizkuntzaren eta kulturaren ondarea jasotzen eskolaren bidez.

Tarteka, ona da gelditu eta egoera zailetan bidea abiarazi zuten haiek go-

goratzea, egindako lana kontuan hartzea eta eskerrak ematea, jakinda inoiz ez diegula behar adinakoa emango.

Garai hartako prozesua oso interesgarria izan zen. Irakasleen gogoia eta pedagogo berriak ezagutzeko eta gurea egokitzeko egindako bidea, gurasoen inplikazioa eta lana, herritarren parte-hartzea, herriaren beharrei so egin eta sortzen ziren bitartekoekin erantzuten ahalegintzea eta abar ikusi genituen.

Denen artean lana egiteko estilo bat jarri zuten martxan, askok mantentzen, egokitzen eta garatzen jakin dutena, beste askok, aldiz, ondorengo ibilbidean galdu egin dutena.

Gaur egun, Europatik datozen aire berriak garai haietan egiten zutena ekartzen digute gogora. Teknologia berriak garatu egin dira eta bitarteko berriekin lan egin dezakegu ikasleak bizitzarako prestatzeko. Baina, funtsean, informazioa bilatzean, ikertzean, taldean lana egiten ikastean, egunero-

kotasunean gertatzen diren egoerak aztertzean, eztabaidatzean eta ikuspegi kritikoa sortzean ari gara gaitasunak garatzen. Eta hori guztia ez al zuten egiten hasierako andereño "berri" haiek?

Inguruan gertatzen ari zenari adi zeunden, eta sentitzen zituzten beharrei erantzuten ahalegintzean, bide zuzena hartu zutela deritzogu.

Sakon ikertu beharko genuke andereño haiek erdal ikasleak euskalduntzeko erabiltzen zuten gertutasuna, goxotasuna, herri txiki baten partaide izatearen sentimenduaren transmisioa eta abar ongi ulertzeko.

Ona da, bestalde, Europatik datozten ildo nagusei jaramon egitea. Eta, garbi izan behar dugu herri bakoitzak bere lan egiteko estiloa behar duela. Eredu onak kontuan izatekoak dira, baina besterik gabe kopiatzea eta gurea ekartzea porroterako bideari alfombra gorria jartzea litzateke, ezta?

Eskerrik asko egindako guztiagatik, andereño eta maisu maiteak!

kronika

Irakasleen ordezkapen sistema berraztertzen ari da Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila. Ikastetxe batzuetan irakaslerik gabe hasi dute ikasturtea, eta egoera horiek saihesteko neurriak hartu nahi ditu Jaurlaritzak. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako mila irakasle baino gehiagok eskatu dute gaixotasun-baja ikasturte hasieran eta egoera horri aurre egin behar zaiola uste du Txontxu Campos Hezkuntza sailburuak. Irakasle batzuek bata bestearen atzetik hartzen dituzte bajak Camposen arabera, nahiz eta beste lanbide batzuekin alderatuz gero, huts egiteak gutxiago diren. Hezkuntza Saila ordezkapen laburrak egingo dituzten irakasleak ikastetxe publikoek beraiek kontratatzeko aukera aztertzen ari da.



Nafarroako Euskararen Institutua sortu dute euskara bultzatzeko

Euskara bultzatzea, horretarako plangintza egitea, ikertzea eta aholku ematea izango dira institutu berriaren eginbehar nagusiak. Herritarrek euskara ezagutzeko eta erabiltzeko duten eskubidea babestea, hori eraginkor egiteko tresnak definitzea eta hura berreskuratzeko eta garatzeko prozesua babestea ere jaso dituzte institutuaren estatutuetan. Nafarroako Hezkuntza Departamentuari atxikitako erakunde autonomoa izango da Nafarroako Euskararen Institutua, izaera juridiko propioa izango du eta lan egiteko erabateko independentzia. Hezkuntza ardura-dunek aulki bana izango dute kontseiluan eta Nafarroako bi unibertsitateek, Euskaltzaindiak, Eusko Ikaskuntzak, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak, Ikastolen Elkarteak eta Nafarroako

Prentsa Elkarteak kide bana. Beste zazpi kide Nafarroako Gobernuak berak izendatuko ditu. Euskararen Kontseiluko eta Oinarriak-eko kideek zalantza agertu dute dagoeneko institutuaren osaketaren aurrean, egungo legeek indarrean dirauten bitartean ezingo dituelako bere helburuak bete. Baina Carlos Perez-Nievas, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kontseilariak argi eta garbi esan du ez dutela legean aldaketarik egingo eta egungo hizkuntza eremuak ere ez dituztela berraztertuko.

Haur eskoletan ere, euskara ardura

Euskara bultzatzeko konpromisoak alde batetik, eta euskarari bultzadarik eza bestetik. Sortzen-Ikasbatuaz elkarteak salatu duenez, Nafarroan 0-3 zikloa arautzen duen dekretuak ez du euskara aipatu ere egiten. Horren ondorioz, haur eskolak euskalduntzeko plataforma sortu dute hainbat gurasok eta hezkuntza arloko zenbait profesionalak. Izan ere, euskaraz aritzen diren bi haur eskola baino ez dago Iruñean, biak Txantrea auzoan eta eskaintza horrekin ez dago inondik inora dagoen eskaerari erantzuteko gaitasunik. Euskarazko eta kalitatezko haur eskolak nahi dituzte eta horretarako bi milatik gora sinadura aurkeztu zituzten joan den maiatzean.

Haurrak ez du bakarrik ingurumena "jasaten" eta hartarik "jasotzen", haurrak ere eragiten dio bere ingurumenari, bere gurasoengandik hasita. Haurra estimulu emaile eta eragin sortzaile ere bada.

Luis Alvarez Santa Cristina



Ikasturte berria, erronka berriak

Euskal Herriko ikastetxe guztiek zabalik dituzte ateak dagoeneko. 2007-2008 ikasturteak aldaketa ugari ekarriko du eta zenbait kasutan zailtasun dezentere ere bai. Horiei guztiei aurre egitea izango da eguneroko lanarekin batera ekainera bitarteko eginbeharra.

Guztira, 410.000 ikaslek hasi dute ikasturtea Euskal Herrian; Hegoaldean 385.000 ikaslek baino gehiagok ekin diote ikasturteari eta Iparraldean, ia 25.000 ikaslek.

Arabian, Bizkaian eta Gipuzkoan curriculum berria ezartzen hasi da Eusko Jaurlaritzak. Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailan eta Bigarren Hezkuntzako 1. eta 3. mailan ezarriko da ikasturte honetan. Ikasturte berria irakasleak aldatzeko prestatzeko erabiliko duela agindu du Jaurlaritzak, baina hainbat irakaslek, erreformaren aplikazioa egiteko denbora falta salatu dute. Bien bi-

tartean, LOE legeak ezarriko duen Herriartasunerako Hezkuntza ikasgai berria, aurten, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ikastetxe gutxitan eskainiko duten arren, Nafarroan, Bigarren Hezkuntzako 3. mailan hasi dira ematen. Horrek protestak eragin ditu eta Askatasunean Hezi Nafarroako Plataforma eratu dute. Helburua, ikasgai berriari aurre egitea da. Kontzientzia eragozpena bultzatzeko kanpaina abian jarri dute eta gurasoek aukeratzeko eskubidea dutela nabarmendu. Eta Nafarroan ere, izango da beste aldatetarik, ikastetxe publiko gehiagotan eskainiko baita *British* delako eredu.

Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan, berriz, inoiz baino haur gehiagok eman dute izena Seaskako ikastoletan, ia 2400 ikaslek, baina zailtasun asko dituzte oraindik. Frantziako Hezkuntza Ministerioak bi urteko haurrak ez ditu kontuan hartzen eskolatuak egon arren eta Euskararen Erakunde Publikoak ematen zion dirulaguntza bikoiztuta ere, 80.000 euroko zorra hartu behar izan du Seaskak bere gain, haur horiekin arituko diren sei irakasleren postuak ordaintzeko. Eskola publikoetan 17.000 ikaslek baino gehiagok eman du izena 1. mailan, horietatik 4.000 pasatxok eredu elebidunean. Eskola giristinoetan 6.000 ikasle pasatxo ariko dira, horietatik 1.700 baino gehiago adar elebidunean.

Lapurdikoa, Nafarroa Behereko eta Zuberoako lizeoetan ikasten duten hamar ikaslelik bederatzik, frantsesez ikasten dute. Hala diote Euskararen Erakunde Publikoak 2004-2005 urteetan egindako inkesta kuantitatiboaren emaitzek.

Gaur egungo datuak berdintsuak dira eta horien arabera ikastetxe pribatuak ikasle % 2,4k ikasten du murgiltze ereduarekin, % 2,3k eredu elebidunean eta % 4,4k du euskara ikasgai gisa. Hezkuntza publikoan ari diren ikasle euskara maila, berriz, ezagutzerik ez dago.

Ama eskoletan eta Lehen Mailan hobea da egoera, hiru ikaslelik batek euskara edo euskaraz ikasten baitu. Bigarren mailan, kolegioan, bostetik batek ikasten du euskaraz. Seaskaren murgiltze ereduarekin 1.600 ikasle ari dira ikasten ama eskoletan edo Lehen Mailan, 700 eskas Seaskak dituen hiru kolegioetan eta ez dira 200 iristen lizeo bakarrean. Izan ere, lizeoan euskaraz ikasita ere, unibertsitate eskaintza murriztu dute gero, eta Lanbide Heziketarik ez da eskaintzen euskaraz. Dena den, atzetik datozen ikasle euskaldunen eraginez, urteek aurrera egin ahala egoera hobetuko dela pentsatzeko arrazoirik bada.

GAIA

Hiriak eta herriak
etengabeko heziketa eragile





Hirian, nonnahi eta noiz-nahi, hezi egiten da. Gure inguruneak eta eguneroko bizitzak eragina du gugan eta heziketaren parte da. Hiriaren heziketa intentzioa lantzeko xedez sortu ziren hiri hezitzaileak, eta beraien ideia hiriaren antolaketaren maila guztietan helburu hezitzaileak lantzea da, herritarren formazioan eragiteko asmoz. Ideia horiek praktikara eramateko metodologia Hiriaren Heziketa Proiektuan datza, udalaren sail guztietan islatu beharreko proiektuan. Adibide gisa, Bartzelona probintziako udalen sarea eta Donostia Hiri Hezitzaileen proiektuaren hainbat zertzelada ezagutuko ditugu.

G

Herritarren heziketa helburu duten herri eta hiriak eraikitzen

Hiria aukera anitzez beteriko espazioa da eta baldintza material ugari eskaintzen dizkigu. Era berean, hirietan sortzen dira desberdintasun sozial handienak eta bertan dago pobrezia gehien. Aukera eta eskaintza anitzen erakusleihoa da, baina herritar guztiak ez dute askatasun edo aukera bera eskaintza horiek erabiltzeko.

Jendartean aldaketa ugari gertatu dira oso bizkor, lan mundua eta familia motak aldatu dira, immigrazio mugimenduak, globalizazioa, prekarietatea, IKTak... bizimoduak aldatu dira eta galdera berri ugari sortu dira. Hiria konplexutasun eta aniztasun horren isla fidela da.

Behar berriei erantzuteko eta jendartearen eraldaketa gauzatzeko garrantzitsua da heziketa, eta hiria heziketa eragile etengabea da. Guztiak hezten gaitu, baina horregatik eragina ez da beti positiboa. Hirigintza planifikazioa, kultura, hezkuntza zentroak, kirolak, ingurumena, osasuna, gai ekonomikoak, mugikortasuna, zerbitzuak... gure heziketa prozesuaren parte dira. Desberdina da plaza bat diseinatzea bertan jendea eroso esertzeko eta harremanak izateko edo soilik bertatik igarotzeko. Edota errepidea gurutzatzeko azpiko tunel bat egitea edo oinezkoaren mailan zehrabide bat egitea.

Hirien hezteko balioa

Udala, herriarengandik gertuen da goen administrazioa da, eta hortaz, irekiena eta ikusgarriena da. Helburuen arabera, udalaren ekiteak ondorio askotarikoak izango ditu herritarrengan.



Hiri hezitzaileak eginkizun hezigarria lantzen du eta bere sail guztietan txertatzen duen hausnarketa da, udal-tertxeko plangintza orokorretan sartuz. Hezkuntza erakunde formalak, esku-hartze ez formalak eta informalak elkarlanean jardunik, hiriak bere baitan dituen heziketa ahalmen guztiak garatzea lortu behar da. Zeharka, egiten den oro hezitzailea den ala ez aztertu behar da. Halako prozesu batean, ezinbestekoa da herritarren parte-hartzea. Egiten denaren informazioa eman behar zaie eta parte-hartzea ikuspuntu kritikoa eta erreal batetik landu behar da. Horrez gain, garrantzitsua da beharren, proposamenen eta ekintzen ebaluazioa egitea.

Hiri hezitzailea etengabe eraikitzen den proposamena da, herritartasuna eraikitzen duena. Ez da etxe multzoa, espazio publikoak inplikatzeko dituen. Horetan biltzen eta elkartzen dira pertsonak: bilera lekuetan, fabriketan, plazaetan, parkeetan, kaleetan... eta hori dena da hiria.

RECE eta IACE

1990ean izan zen I. Hiri Hezitzaileen Nazioarteko Kongresua Bartzelonan eta bertan sinatu zen Hiri Hezitzaileen Karta. 1994an, Bolognan antolatutako III. Kongresuan, IACE International Association of Educating Cities, Hiri Hezitzaileen Nazioarteko Elkartea sortu zen eta egun, munduko 350 herrialde dira partaide. Ingurune hurbileko beste sare batzuk sortzeko xedez, estatu espainiarrean RECE (Estatuko Hiri Hezitzaileen Sarea) sortu zen, 170 herrirekin. Bi urtetik behin elkartzen dira eta bitarte horretan lan taldeak egiten dira. 2007an Donostian ospatu dira VIII. Topaketak. Helburua, praktika onak trukatzeko eta hausnarketa gune izatea da. Euskal Herrian RECE sarearen partaide dira Bilbo, Donostia, Gasteiz, Iruñea, Barakaldo eta Santurtzi. Ipar Euskal Herriko herririk ez dago Frantziako elkartearen.

Hiriaren heziketa ahalmena

Joan Subirats: "Herritar bakoitzak bere ekarpena egiten du, denok gara hezitzaileak"

Zientzia Ekonomikoetan doktorea, Bartzelonako Unibertsitatean Zientzia Politikoetan katedraduna eta unibertsitate bereko Gobernu eta Politika Publikoetako Institutuaren zuzendaria da. Kudeaketa eta berrikuntza demokratikoko gaietan eta politika publikoetan aditua.

Nola azalduko zenuke hiri hezitzaileen gorakada?

Nik uste dut, oinarrian arazo bat dagoela, hiria bera. Beti izan da konplexutasun, aniztasun, askatasun, itxaropen... espazioa eta jendartea gero eta konplexuagoa egiten joan den heinean, hirian arazo franko pilatu dira. Egungo jendarreak banakoentzako baliabide eta baliabide sozial indartsuagoak behar ditu eta behar horien muienean heziketa bera dugu.

Gero eta argiago daukagu segurtasun gabezia eta arrisku egoeratan heziketa maila altuagoa duen jendeak aurre egiteko gaitasun gehiago duela. Adibidez, osasun arloan gero eta heziketa maila altuagoa izan, arazoak aurreikus-teko gaitasuna handiagoa da, baita teknologia eta lan kontuetan edota jendar-tea ulertzeko orduan. Gatazka korapilatsuenak hirian gertatzen dira, eta badi-rudi eskolak aliatuak galdu dituela hezkuntza prozesuan. Orain arte familia eta lan mundua bezalako espazio hezitzaileekin batera jardun du, baina orain familia aldenduago dago eta lan mundua prekarioagoa bihurtu da. Ingurune anitzago eta konplexuago horretan, eskola bakarrik sentitzen da eta



lehen erantzuna bere baitan ixtea izan da. Testuinguru horretan hiriaren balio hezitzailea indartu da.

Modu batean prozesu bikoitza izan da. Hiriaren balio hezitzailea sendotu da, ekonomia edota teknologia bezalako gaietan adibidez, eta era berean, hezkuntza sistema eta eskoletatik hiria aliatu eta eragile gisa baloratzen hasi da. Eskolak bakarrik ezin die erronkei aurre egin eta eskola eta komunitatearen arteko loturak indartu behar dira. Bigarren elementu bat zera da: heziketa ez dela eskola ulertzea. Heziketa helduen heziketa, hirigintza, parte-hartzea... ere bada.

Adibidez pertsona helduak helduen eskolara doazenean, ez da ikusten horrek benetan duen balioa. Badi-rudi ongi pasatzen soilik ari direla, baina helduen eskola batean izugarritzako balio hezitzailea dago. Gizarte kohe-sioa eta garapen soziala garatzen diren espazioa da.

Nola ulertzen da eskola eta hiriaren arteko harremana?

Bi noranzkodun errepide gisa lan-du behar da. Alde batetik eskola ingurunera ireki behar da, ingurunearekin lan egin, partekatu eta espazio publikoak erabili: plazak, instalakuntza publikoak... Badaude esperientzia politikak; adibidez, eskola bateko haurrek espazio bat babesten dute eta beraien lana hori mantentzea da. Gustura egiten dute, beraiena sentitzen dutelako. Beste eskola batean baliabide hezitzaile gisa ondoko hilerria erabiltzen dute. Hilarriak aztertuz hiriaren historia lantzen dute eta pabiloi edota horma-hilobiak ikusiz desberdintasun sozialak lantzen dira.

Adibidez, eskolan gerra zibilia lan-du behar bada, ikaskuntzarako askoz esanguratsuagoa da gerra bizi izan duen norbait etortzea eta kontatzea. Gazteek emozioen, bizipenen eta irudien bitartez asko ikasten dute eta zailagoa da ahanzten. Nik, Natur Zientzieta-ko ikasleekin, zaborraren prozesu guztia jarraitu nuen, zabor kamioia bera jarraituz. Horrelako prozesuetan irakasleak ez du gehiegi azaldu behar eta beraiak bizitako zerbait ahanzteazailagoa da.

Eta era berean, hiriak eskola denentzako espazio ireki gisa erabili beharko luke. Informatika gelak edota kirol instalakuntzak, adibidez. Eskola hiriaren-tzako baliabide bat gehiago da.

Zein izango litzateke hiriaren indargune hezitzailea?

Batez ere, uste dut, hiriak heldua



Hiriaren heziketa proiektuari buruz ari garenean, udaleko sail guztiak inplikatuak ikusten ditugu, euren eguneroko dinamikan hausnarketa hori txertatuz.

denean nolako hiria izan nahi duen pentsatu behar duela eta hiri proiektua egin. Ez da gai teknikoa, gai politiko-soziala da, eta jakin behar da ea hiri kohesionatua izan nahi duen, ea konplexutasuna onartu nahi duen... Hortaz, eskolaren harremana bertan txertatu behar da. Ezin da eskola planteamendu bat egin hiri planteamendurik gabe. Zein hiri nahi dugu eskolarentzat? Zein eskola nahi dugu hiriarentzat?

Kaleko, etxeko eta hiriko esperientzia formatiboak ezin dira heziketa prozesutik kanporatu. Eskola-auzo eta eskola-familia bezalako loturak landu behar dira.

Hiri hezitzaileek hiria kudeatzeko modu berria planteatzen dute.

Ezin dugu pentsatu heziketa espezializazio profesional administratiboaren objektu denik, askoz zeharkakoa da. Hiriaren heziketa proiektuek ari garenean, hirigintzaz, ekonomiaz, gizarte zerbitzuez... ari gara. Gai horietako bakoitzean heziketa esperientziak daude: ingurumeneko teknikariak zaborenguruan ikastaroa egin dezake, hirigintzako teknikariak erabaki dezake kale bat adiskidetsuagoa egin edo

ez. Hiriaren heziketa proiektuari buruz ari garenean, udaleko sail guztiak inplikatuak ikusten ditugu, euren eguneroko dinamikan hausnarketa hori txertatuz. Hausnarketa hortan daude kultur zentroak, antzerki eskolak, museoak, bizilagun elkarteak, udaltzaingoa... heziketa guztion erronka da.

Hiriek ba al dute hezkuntza eskumen nahikorik eragile hezitzaileak izateko?

Hiria eragile hezitzailea al den? Nik uste dut sarri ezetz. Bonbilak aldatzen dira, gauzak konpondu, eskola batentzat lurrak bilatu... baina esaten ari garen guztiak ez du zentzurik ez bada hezkuntza eskumenen dezentralizazioz josten. Autonomia erkidegoak pisu handia kenduko luke eta eguneroko lan astun ugari saihestuko litzuzke. Bestalde, udalak bere eremu propioarekin indartuko luke hiriko heziketa proiektua, eta nik uste dut hori bideragarria dela. Hiriaren heziketa proiektuak gauzatzeko garrantzitsua da dezentralizazioa.

Zer suposatzen du hiriaren heziketa proiektuak irakasleentzat?

Askok mehatxu gisa ikusten dute. Badirudi eskola bere baitan ixteko joera hartzen ari dela eta estatus galera gisa bizitzen dutela. Defentsa posizioaren joera ikusten dut: errealitatea aurkakoa denean, egunetik egunera gauzak konplexuagoak direnean, familiak hor ez daudenean... beraien segurtasunetan ixten dira. "Nire ikastorduak, nire apunteak eta nire egiteko moduak". Irteera posible bakarria konplexutasuna eta interdependentsia onartzea da. Bilatu eta sareak berregin behar dira. Horretarako garrantzitsua da norberaren



lanbidearen egiteko hezitzailea nabarmentzea. Desberdina da medikuaren eta gizarte langilearen profila, bakoitzak bere ekarpena egiten du, baina elkarren beharra dugu, heziketa lan kolektiboa baita.

Hortaz, ideia horiek mehatxu gisa ikusi beharrean aukera gisa ikusi beharko genituzke.

Besteengandik ikasteko prest sentitu. Jendarte konplexuari modu konplexuan aurre egin behar zaiola onartzen ikasten dugu.

Nik uste dut irakasleei lana erraztu behar diegula. Irakasleak ez dira super heroiak. Hori dena errazagoa izateko egin behar dugu lan. Harreman baliabideak eskaini behar dizkiegu, kontua ez da eskola beste hamaika profitez betetzea, psikologoz, kale hezitzailez, gizarte langilez edota polizia. Kontua ez da eskola dena konpondu dezakeen mikrokosmos bat bihurtzea, baliabide horiek jada inguruan badauzkagulako eta erabili egin behar dira.

Bartzelonako adibidea



Montse Roig: "Oso proiektu politikoa eta estrategikoa da eta udalek prest egon behar dute"

Bartzelonako Diputazioko Hezkuntza Gaietako teknikari aholkularia.

Nola ulerten duzu zuk hiri hezitzailea?

Oso kontzeptu zabala da. Sarri hiri hezitzailea eskolari laguntzeko zerbitzu multzo gisa definitzen dela entzuten dut. Nik uste dut hiri hezitzailea hori baino askoz gehiago dela, eskola baino askoz haratago doala. 0-100 urte bitarteko herritarren beharrei erantzutera dator. Hiri hezitzaileak, gure bizitzako une orotan elkarrekin erlazionatzeko, ikasteko eta ikasitakoa ezagutarazteko aukerak, baliabideak eta espazioak eskaintzea du xede. Hortaz, hiri hezitzailea heziketa eragile eta baliabide hezitzaile gisa hautematen dut. Era berean, hiri hezitzaileak herritarrak herritartasunean hezten ditu, eta horretarako ezinbestekoa da parte hartzea. Parte hartuz, entzuten, hitz egiten, ulertzen eta elkarrekin erabakiak hartzen ikasten dugu.

Zer aldatzen da hiriaren proiektutik hiriaren heziketa proiektura? Nolako onurak ditu?

Hiriaren heziketa proiektua egiten den unetik, heziketa agenda politikoan barneratzen da. Nire ikuspuntutik, heziketa ikaskuntza eta eraldaketa da. Zerbait ikasten dugun bakoitzean aurrerapausoa egiten dugu. Hortaz, hiriaren heziketa proiektuak proiektu estrategikoagoi eta zehatzagoi eraldaketa kutsua gehitzen die. Izan ere, herritarrak zerbait ikasten duten heinean, hirian nola bizi nahi duten erabakitzen doaz. Nahiz eta hiria estetikoki aldatu,

horrek soilik itxura aldatuko du. Pertsonen parte-hartzeak sustatzen du eraldaketa. Hortaz, heziketa hirien eraldaketarako funtsezko elementu estrategikoa da hiri inklusiboagoak lortzeko.

Zer da hiriaren heziketa proiektua?

Hiri hezitzailearen filosofia metodologikoki posible egiteko saiakera da: planifikatu, antolatu eta ordenatzea. Bartzelonako Diputaziotik saiakera berezia egin dugu. IGOP Gobernu eta Politika Publikoetako Institutuaren, Joan Subiratsen institutuaren, laguntzaz diseinatu genuen metodologia. Hiri bakoitzaren berezitasunekin malgua izango zen metodologia sortu nahi genuen, bakoitzak bere bide propioa garatzeko. Hala, udaletxeek badute lan sistematizatua, datuak jasotzeko eta antolatzeko metodologia. Hortik aurrera parte-hartze lana oso garrantzitsua da, sektore desberdinen arteko eta zeharkako lanak benetan emaitzak aberatsak izateko. Esku-hartze anitz elkartzen dira: logika politikoak, profesionalak eta hiritarrak. Metodologia denon artean etengabe ebaluatu beharreko erreferentzia eredu da.

Zein dira metodologia horren ezaugarriak?

Hasteko, lau mapa egiten dira. Horietatik hiru bulegoetan egiteko mapak dira: soziodemografikoa, hezkuntza zentroen mapa eta heziketa baliabideen mapa. Azken horretan administrazioaren guneak, hezkuntza ez formalarrekin zerikusia duten guneak, tailerrak, antzerki eskolak, musika eskolak, hiz-

kuntza eskolak, formazioa eskaintzen duten enpresak, elkarteak... kokatzen dira. Laugarren mapa, ostera, bereziagoa da, elementu parte-hartzaileak ezinbestekoak direlako. Jada diagnostikoan parte-hartze prozesua dago, erakunde eta bizilagunen elkarrekin eta hiriko sare sozialarekin lan egiten hasten gara: ea eskolak atseginaizkien, ea herritartasuna badagoen, nola ikusten duten hiria, ea plazatxoak nolakoak diren erlazionatzeko, ea etengabeko prestakuntzarako baliabideak aurkitzen diren, ea jende berri asko iritsi den... Udaletxe bakoitzak bere antolaketa organoak dauzka, herri kontseiluak, auzo kontseiluak, bizilagunen elkarteak... eta herri bakoitzean, bertako udalen iradokizunen arabera egiten da lan.

Herritarrak jada proiektu hezitzailearen inguruan berrikerian hasten dira, zer gustatzen zaien eta zer aldatu nahi duten. Lau mapen elkarrekin egiten da eta diagnostiko hori proiektuan parte hartzen ari diren guztiei itzultzen zaie eta denon artean ildo estrategikoak definitzen joaten dira. Une horretan, talde sustatzailea sortzen da herritarrekin, elkarteetako jendearekin... interesa duen edonorekin. Herriko sektore desberdinen ordezkapena lortzen saiatzen gara eta bai udaletik eta bai talde sustatzaile horretatik jende gehiago erakartzeko saiakera egiten da. Talde sustatzaileak berea sentitzen du proiektua.

Hortaz, herri bakoitzak bere diagnostikoa eta proiektua du. Zertan datza zuen lana?



Gure lana, alde batetik diruz laguntzea da, eta bestetik beraien lana errazteko metodologia orokorrak eta tresnak sortzea. 1990eko hamarkadan hasi ziren lehen hirien heziketa proiektuak eta lehen belaunaldiko proiektuak aztertuz asko ikasi dugu. Hortaz, duten konplexutasuna eta berritzailetasuna kontuan hartuz, garrantzitsua ikusten dugu proiektuen ibilbideei jarraipena eta aholkularitza egitea beraien dinamika propioa egin arte. Adibidez, parte-hartzea zeharlerro gisa idatzita dugunean oso erraza da, baina errealitatean zailagoa da.

40 udalen arteko sarea antolatu dugu eta aholkularitza gain hainbat topaketan antolatu ditugu gai askotarikoak joratzeko xedez. Hainbat aditurekin egin dugu lan, tartean Joan Subiratsekin. Guk geure praktika aztertzen dugu eta adituek azalpenak eman, aholkularitza eskaini eta egiten duguna sistematizatzen laguntzen digute. Hala, ideia, hausnarketa eta autoformaziorako gunea da udalen arteko sare hori. Bestalde, esperientziak trukatzeko baliagarria da eta praktika onak jasotzen ditugu.

Udalek egiten dute eskaera ala Diputazioak eskaintza?

Guk udal guztiei egiten diegu eskaintza, baina gero beraien etorri behar dute eskaera egitera. Oso proiektu po-

litikoa eta estrategikoa da eta udalek prest egon behar dute horretarako. Udal batek ez badu behar adina heldutasun politiko, ez egiteko gomendatzen diogu. Hiriaren heziketa proiektuak arrakasta izan dezan, ondoko ezaugarriek garrantzia dute. Lehena, udal guztiak eta alkateak nahi izatea, ez soilik hezkuntza batzordekoek. Bigarrena, idazkaritza tekniko indartsua izatea, antolatze eta kudeatzeko gaitasun handiarekin. Hurrengo baldintza eta oinarritzak, herritarren parte-hartzea da. Eta azkena eta zailena, herrian heziketa foroak sortzea. Hala nola, herriko "agora" moduko bat sortu behar da, herriko heziketa foroak.

Zein da eskolaren papera hiri hezitzaileen marko horretan?

Eskola hezkuntza gaietan erreferentziatzeko erakundea da eta lan prebentibo ugari egin daiteke. Baina gure indarra eskola laguntzean baino, eskola ingurunera irekitzean datza.

Hiria baliabide hezitzaile eta eragile gisa ikustea nahi dugu, elkarrekin erronkei aurre egiteko prest. Gure helburua ez da horren bitartez horiei lana ematea, elkarlana eta laguntzea baizik.

Zein izango litzateke irakasleen papera hiri hezitzaileetan?

Guretzat irakasleen ekarpena oinarritzak bada ere, irakasleak orokorrean nahiko itxiak daudela iruditzen zait. Gutxiago kostatzen zaigu dendarietako parte hartzea, irakasleak baino. Ez da salaketa bat, nik uste dut une honetan irakasleek bizi duten presioari erantzuten diola horrek. Eskolak jendartearen aldaketa guztiak ikasgeletan ikusten dituzte egunero-egunero. Aldaketak ugariak dira, baina formazio aukerak ez dira hainbeste. Horrek presio asko sortzen du eta irakasleak oso itxiak daude, baina nik uste dut aliatu sentitzen joango direla.

Bartzelonako herri hezitzaileen sareko adibideak

* Dendarien inplikazioa: dendetan pegatina bat jarri hurrek badakite edozein behar izanez gero bertara sar daitezkeela: telefono dei bat egiteko, komunera joateko, beldurra dutelako...

* Etorkinentzako hizkuntza eskolak.

* Hiri bateko agureak, haurren eskolarako bidea seguruagoa egiteko lanetan dabilta. Adibidez, eskola sarreran autoei ez aparkatzeko eskatuz, haurrei semaforoetan lagunduz eta abar.

* Institutuetako gazteek adineko jendeari informatika programak erakutsi dizkiete.

* Herriko merkatuan elikadura programa bat garatu da. Hurrek, bertara joatean, elikagai anitzen propietateak, erosketako erakundeak, elikadura osasuntsuaren informazioa... jasotzen dute.

* Harrera familia. Atzeritik familia bat datorrenean herriko familia batek harrera egiten dio herriaren gaineko azalpena emanez: eskolen informazioa, ambulatorioa non dagoen eta nola eskatu hitzordua... edozer gauza.

* Bartzelona ondoko herri txiki batean hiritik jende ugari joan da bizitzera eta ez dira hirian asko egoten. Herritarrek, herriaren identitatea galtzeko beldurrez, biztanle berriei ongietorria eta herriaren bisita egin die. Poliki-poliki herriko txokorik berezienak eta herriaren inguruko azalpenak antolatu dira, hurremanak sortzen joateko.

* 0-3 urte bitarteko haurren espazioak profintatu dira gurasoekin harremanak lantzeko: haur eskolako hezitzaileak, gurasoak, pediatra... denen artean sareak sortuz.

* Zaharren egoitzetan haurrei istorioak kontatzen zaizkie memoria historikoa eginez.

Donostiako adibidea

Non ikusten da ikuspegi hezitzailea?

1998an egin zuen bat Donostiak Estatuko Hiri Hezitzaileen Sarearekin, Hiri Hezitzaileen Gutuna sinatuz. Zortzi urte hauetan, ekimen ugari bultzatu ditu Donostiako udalak eta Nazioarteko Hiri Hezitzaileen Sarearen zuzendaritza batzordearen partaide ere bada. Hortan dihardute Gazteria, Hezkuntza, Lankidetzeta eta Giza Eskubideen Saileko zuzendari Txuri Aranburuk, Hezkuntza bulegoko Artemis Olaizola arduradunak eta Jon Lasa Hezkuntza zinegotziak.

Udaleko sail anitzekin elkarlana garrantzitsua izan da, baita arduradun politikoen inplikazioa ere. Hiriaren garapenean elementu estrategikoa bihurtu da heziketa, eta programa anitzen bitartez biztanleengan eragin nahi da. Jadanik egiten denari ikuspegi hezitzailea garatu eta koordinatzeaz gain, proiektu berriak sortu dira. Erakunde publiko, pribatu eta elkarteekin batera, Donostiako udalak herritartasuna eta parte-hartzea landuz herritarraren formazioan esku hartu nahi du.

DONOSTIA HIRI HEZITZAILEA plan estrategikoaren hainbat adibide



Balioetan hezi:

Donostiako heziketa proiektuan, testuinguruagatik, funtsezko garrantzia izan du balioetan hezteak. RECE sarean horren inguruan gaikako sarea antolatzea proposatu zuten eta martxoan antolatutako kongresuan ere hori izan da hizpide eta hausnargai nagusia. Hortaz, udalak, bakearen aldeko, giza eskubideen defentsarako, talde gutxituen aldeko, heriotza zigorraren aurkako edota xenofobiaren aurkako material didaktikoak eta pedagogikoak zabaldu ditu. Horrez gain, hainbat sentsibilizazio kanpaina edota ekimen atera ditu aurrera: epaitegietako lorategian HIESaren lazoa marraztea edota Kurasaala ekainaren bukaeran Gay eta Lesbianen kolorez janztea, besteak beste. “Hiriko gune ospetsuenak erabiltzea garrantzitsua dela uste dugu”.

Parte-hartze aktiborako politikak bultzatu

Udaleko hainbat ataletan parte-hartzea sustatzeko sortu zen “herritarren parte-hartzea zuzentzeko plana”. Helburuak gizarte kohesioa, demokraziaren balioak sustatzea eta hiri inklusiboa lantzea dira. Udaleko sail bakoitzean talde aholkularia dago, udaleko jendeaz gain elkarteetako jendea eta herritarrak biltzen diren gunea. “Gune horiek parte hartzeko prestakuntza eragiten dute. Hiriko hainbat sektoreren parte-hartzea lortzen saiatzen gara eta hori ez da lan erraza, hiria kudeatzeko modu berria inplikatzeko duelako”.

Adibideak: belaunaldien arteko espazioen sorrera, esku-hartze sozio hezitzaileak, lanbide hastapen programak, lanaldi osoaren sustapena...



Heziketa eta kultura

Ekimen asko gauzatzen dira espazioak beharretara egokituz eta herritarren informazioa eta formazioa sustatuz: ikastaroak, antzerkia, kontzertuak, poesia errezi-taldiak, literatura saioak, tailerrak, zine forumak... “Gure helburua batez ere sormena eta adierazpena sustatzea da”. Auzo guztietan daude kultur zerbitzuak eta zentroak. “Bestelako aisi eta gozamen guneak izan nahi ditugu, batez ere gazteen-tzat, adibidez gaztelekuak”.



Heziketa eta kirola

Haur, heldu zein adineko pertsonen artean kirola sustatzeko kanpaina anitz egin dira eta auzo guztietan daude herritarrentzako instalakuntzak. "Batez ere, eskola kirolean jarri dugu indarra".

Heziketa eta ingurumena

Berdeguneak areagotu, kutsadura eragozteko politikak sortu edota gazteria sentsibilizatzeko kanpainak sortu nahi izan dira. "Guk, hiri gisa, garapen iraunkorren aldeko apustua egin dugu". Horrez gain, hirian bidegorria dago. "Bidegorria ez da soilik mugikortasun kontua. Guretzako hiri eredia da: ekologikoa, oinezkari garrantzia ematen diona eta kohesio soziala bultzatzen duena".



Heziketa eta hirigintza

Hirigintzaren garapena ordenatzea da helburua: bizilekuen, oinezkoentzako guneen, zerbitzu publikoen, jolaslekuen eta kultur zentroyen arteko oreka bilatu nahi da. "Hirigintza hiriaren eredurako eta herritarren bizimodurako erabat baldintzatzailea da".

Alokairu politikak, BOE etxeak, berdeguneak, bizikidetza espazioak, mugikortasun bertikala, bizikletaren, garraio publikoaren kalitatea hobetzea... bultzatu nahi da.

Hezkuntza zentroekin lanean

Hezkuntza programa eta baliabideei dagokionez:

- Ikasturtero hezkuntza programen udal gidaliburua argitaratzen da.
- Hiriko baliabide hezitzaile, zentro, instalakuntza, kultur etxe, haur txoko, gazteleku... eta beste hainbat baliabide hezitzailearen mapa egin da.
- Hezkuntza zentroyen ordutegiaren malgutasuna handitu da.
- Eskolaz kanpoko ekintzak sustatu dira.

Eskola publikoaren duintasunari dagokionez:

- Jolaslekuak estaltzeko planaren akordioa egin da eskolekin. Horrekin batera, eskoletako espazio horiek auzotarrentzat irekiak egon beharko dute.
- Jantokiak, komunak... hobetzeko plana.
- Eskolen artean mediateka sarea sortzeko plana.



Giza eskubideak landuz

Donostiako udalak, elkartasuna, bizikidetza eta tolerantzia bezalako balioak landu nahi ditu, ulermen giroa bultzatzeko asmoz.

Horretarako, giza eskubideen programa bereziak egin dira, tartean, "Bakearen Kulturaren espazioa". Horrez gain, Giza Eskubideen Institutua, Giza eskubideen zinemaldia, bakearen aldeko kontzertua eta beste hamaika ekimen garatu dira.

guiomar mendizabal

ELKARRIZKETA

Pedagogo eta irakaslea

// Arreta gabezia arazoak daudenean esku-hartze kausalaren aldekoak gara, esku-hartze farmakologikoaren aldean //



// Arreta gabezia arazoaren arrazoiak askotarikoak izan daitezke eta horregatik da garrantzitsua diziplina artean lan egitea. Era horretan, harremana ezar dezakegu haurrak duen arreta gabezia arazoaren eta, adibidez, entzumenean duen arazo baten artean.

//

Esku-hartze kausala arazoaren errora doa, esku-hartze farmakologikoak sintometan gehiago eragiten duen bitartean. Hori da Guiomar Mendizabal irakasle eta pedagogoak helarazi digun ideia nagusia. Beatriz Gomez eta Iñigo Odriozola lankideekin batera egiten du lan Guiomarrek, hiruek osatzen duten Bulego Pedagogikoan.

Bere azalean bizi izan zuen eskola porrota eta horrek bultzatu zuen egoera berdintsuan zeuden haurrekin arduratu eta beraiekin lan egitera. Bere burua haur horiengan islatuta ikusten du eta, esaten duen moduan, horrek bere lana errazten du, sentitzen dutena ezagutzen duenaren abantailarekin jokatzeko duelako. 25 urtez gorakoentzako unibertsitatera sartzeko frogak gainditu ondoren, irakasle ikasketak egin zituen, pedagogia ikasi zuen eta esku-hartze psiko-pedagogikoan doktoradutzako bi ikasturte egin zituen. Beranduago, eskola porrota maila baxua izateagatik ezaguna den Bartzelonako Montserrat ikastetxera joan zen bere prestakuntzarekin jarraituz. Entzumen gaietan trebatu zen eta optometristekin ere ikastaroak egin ditu. Guiomar Mendizabalen prestakuntza etengabea da, zailtasunak dituzten haurrei erantzuna eman behar zaiela pentsatzen duelako eta horretarako behar bezala trebatzea beharrezko ikusten duelako.



Zer motatako arazoekin joaten dira haurrak zuen bulegora?

Batez ere irakurketarekin eta idazketarekin arazoak dituzten haurrak etortzen zaizkigu, baina arreta arazoak dituztenak ere etortzen dira eta garpentzen arazoak dituztenak ere hartzen ditugu, horien kasuan kopurua txikiagoa den arren.

Zein adinetan behar izaten dute haurrek zuen laguntza?

Batez ere, Haur Hezkuntzan behar izaten dute gure laguntza, baina Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikasleekin ere aritzen gara lanean.

Azkenaldian, antzeman al duzue arreta arazoek sortutako ikasketarako zailtasunak dituzten haurren kasuen kopuruak gora egin duela?

Bai. Azkenaldian arreta jartzeko zailtasunak dituzten haur dezente ari gara ebaluatzen.

Eta zer arrazoiak sor dezake arreta gabezia arazoa haur batengan?

Arrazoiak askotarikoak izan daitezke. Arrazoi fisiko-biologikoak, zentzumenei dagozkien arrazoiak, psikomotritizitatearekin zerikusia duten arrazoiak eta arrazoi emozionalak izan daitezke.

Arrazoi fisiko-biologikoak askotarikoak izan daitezke, baina agian, arreta gehien eskaintzen diogunetako bat elikagaiekiko tolerantziarik eza da. Badira, egunero hartzen duten elikagai baten aurrean, esnearen aurrean, tolerantziarik eza azaltzen duten haurrak. Alderdi horri garrantzia ematen diogu arazo horiek dituzten haurrek askotan muki asko izaten dituztelako. Eta ho-



rrak, batzuetan, entzumenean eragiten du. Entzunbidea mukiz beteta dagoenean, haurrak ahalegin handiagoa egin behar du en-tzumenaren bidez jasozten duen informazioa barneratzeko. Horregatik egon behar dugu irakasleok arazo horiek dituzten haurrekin adi.

Zentzumenekin zerikusia duten arazoez ari garenean ikusmena, entzumen eta orekari buruz ari gara, funtsean.

Ikusmenaz hitz egitean, ez dugu soilik haurrak ikusteko duen zorrottasunaz hitz egiten. Haur batek ikusmen zorrottasun ona izan dezake eta begiak mugitzeko arazoak izan ditzake. Baliteke, kokapenetan edo ikusmen binokularrarekin ere, arazoak izatea. Gogoan izan behar dugu eskolan haurrak jasozten duen informazioa batez ere begietatik eta belarrietatik sartzen zaiola. Horregatik egon behar dute bi bide horiek ahalik eta baldintzarik onenetan.

Entzumenarekin beraz, gauza bera gertatzen da. Badira entzumen onak duten haurrak, baina informazioa barneratzeko arazoak dituztenak. Iristen

zaien mezua ulertzeko zailtasunak dituzten haurrak dira. Haur horien ezagarrrietako bat da, beraien lengoia de-seguratua egoten dela.

Orekari dagokionez, oreka estatikoa eta oreka dinamikoa ebaluatzea komeni da. Bada haur kopuru handi samar bat oreka dinamiko ona duena eta oreka estatikoaren kasuan, arazoak dituen. Agian, zentzumen guztietatik oreka da ahaztuena. Baina oreka kontuan hartzea beharrezkoa da, sentsazio guztiak sistema vestibularretik pasatzen direlako eta horrek nerbio sistema autonomoarekin, ikusmen sistemarekin, entzumen sistemarekin eta sistema linbikoarekin loturak dituelako.

Psikomotrizitatearekin zerikusia duten arazoiei buruz hitz egitean, lur-reko etapa bere baitan hartzen duten mugimendu erduei buruz ari gara. Etapa horretan haurrak bi antolakuntza maila antolatzen ditu: fase homolateral eta fase kontralateral. Etapa horien antolakuntza faltak haurrak etorkizunean eskolan ikasteko zailtasunak izatea ekar dezake.

Azkenik, arazoi emozionalak aipatuko nituzke. Horiek ere askotarikoak izan daitezke eta horregatik da beharrezkoa kasu horietan psikologo baten esku hartzea.

Garrantzitsua da alderdi horiek guztiak kontuan hartzea, zaila delako haurrak arreta jartzea aipatutako alderdiek egoki funtzionatzen ez duten bitartean.

Nola irits gaitzke arazoaren arazoira?

Arreta gabezia arazoaren arazoira, ikusi dugun moduan, asko izan daitezke eta horregatik da garrantzitsua diziplina artean lan egitea. Era horretan, harremana ezar dezakegu haurrak duen arreta gabezia arazoaren eta, adibidez, entzumenean duen arazo baten artean.

Zein motatako profesionalekin egiten duzue lan esku-hartze kausal honetan?

Esku-hartze mota honetan optometristarekin, garuneko osteopatare-



rapia kausala aplikatuko genuke berreziketa pedagogikoari dagozkion programekin batera.

Eta zein da esku-hartze farmakologikoaren eta esku-hartze kausalaren artean dagoen desberdintasunik handiena?

Desberdintasun nagusia da, esku-hartze farmakologikoak batez ere sintometan eragiten duela eta emaitzak kasu batzuetan azkarragoak direla. Esku-hartze kausalean, berriz, arrazoietan eragiten saiatzen gara eta emaitzak epe luzeagora jasotzen ditugu, baina iraunkorragoak dira.

Esku hartze farmakologikoaren alde egiten den kasuetan, zein botika ematen zaizkio haurrari?

Gehien erabiltzen diren botikak *Rubifen* eta *Concerta* izenekoak dira.

Eta zer desberdintasun dago bi botika horien artean?

Concerta izenekoak hamabi orduz

E

// Desberdintasun nagusia da, esku-hartze farmakologikoak batez ere sintometan eragiten duela eta emaitzak kasu batzuetan azkarragoak direla. Esku-hartze kausalean, berriz, arrazoietan eragiten saiatzen gara eta emaitzak epe luzeagora jasotzen ditugu, baina iraunkorragoak dira.

//

kin, psikologoarekin eta homeopatarekin batera egiten dugu lan.

Zein eratan egin daiteke lan arreta gabezia arazoak dituzten haurrekin?

Esku hartzeko bi era daude. Horietako bat farmakologikoa litzateke. Kasu horretan, haurrari neurotransmisore batzuen gainean eragiten duen botika ematen zaio. Botika horrek haurrak dituen sintomak leuntzen ditu, baina ez du arazoaren oinarrian eragiten.

Esku hartzeko bigarren erak, alderdi kausaletan eragingo luke. Beraz, te-



jarraian eragiten du haurren garunean eta *Rubifenek* denbora tarte txikiagoetan zehar eragiten du eragina.

Botika horiek hartuta, posible al da arreta gabezia arazoak konpontzea?

Botika mota horiek badute eraginik arreta gabezia arazoak dituzten haurrengan, noradrenalina eta dopamina bezalako neurotransmisore batzuk askatzea eta horien sintesia errazten dituelako. Baina eragin hori behin-behinekkoa da eta ez da kausala. Behin botikak efektua egiteari uzten dionean, haurrak arazo berdinak izango ditu. Esku-hartze mota honek askotan, benetan, arazoaren muinera zuzenean doazen beste esku-hartze mota batzuk ez erabiltzea dakar.

Zein ondorio utz ditzakete haurrengan mota horretako botikek?

Haur batzuek jateko gogoa galtzen dute eta lo egiteko arazoak ere izaten dituzte.

Dena den, esku-hartze farmakologikoa gehiago aukeratzen da oraindik. Zergatik? Gizarteak ezartzen al du eredu hori?

Egia da arreta gabezia arazoei esku-hartze farmakologikotik aurre egiten saiatzeko joera handiagoa dagoela. Baina uste dut esku-hartze kausalak indarra hartuko duela irakasleok haur horiei arreta arazoak sortzen dizkieten aukeren inguruan trebatzen garen heinean.

Eta egia da baita ere, gizartean terapia farmakologikoari buruzko informazio gehiago dagoela terapia kausalari buruzkoa baino, baina gero eta interes handiagoa dago irakasleen aldetik farmakologikoa ez beste mota bateko esku-hartzeak ezagutzeko.

Zer protokolo jarraitzen duzue haur bat lehen aldiz ikusten duzuenean?

Haur bat lehen aldiz ikusten dugunean egiten dugun lehendabiziko gauza ebaluazio osoa da; bai zentzumenei dagokiena, bai mugimenduari dago-



kiona eta baita ebaluazio pedagogikoa ere. Behin hori eginda, gurasoekin elkartzen gara ebaluazioaren emaitzen berri emateko eta beraiek guri haurren bizitzari buruzko informazioa eman diezaguten. Hori funtsezkoa da haurren egungo egoera ulertzeko. Garrantzitsua da haurdunaldiari, erditzeari eta haurren garapenari buruzko datuak jasotzea.

Behin datu guztiak esku artean izanik, gurasoak orientatzen ditugu eta beharrezkoa baldin bada, beste profesional batzuen esku hartzea egoki ikus-

ten dugula esaten diegu. Esate baterako, datuak jasotzen ditugun bitartean gurasoek erditzea zaila izan dela esaten badigute eta adibidez, forzepe-ak erabili behar izan dituztela, garuneko osteopatarekin harremanetan jartzeko aholkatzen diegu haurrari ebaluazio bat egin diezaion.

Zergatik? Erditzean zailtasunak izan diren kasuetan, arazo gehiago izan al ditzakete haurrek?

Erditzea zaila izan denean, haurra zesarea bidez jaio denean edo forzep-

guiomar mendizabal

E

// Ikaslea egoera horretan egotearen arrazoiak berri ematen diezunean, haurren jokabide asko ulertzen dituzte irakasleek. Horrek, guztion artean haurrari lasaitasuna ematea dakar eta denbora bat ematea, inguruan dituen profesional guztien laguntzarekin, bere ikasketa prozesua nekezagoa egiten ari diren zailtasunak gainditzeko.

//



sak erabili direnean, ez dira erditze bideetik pasa eta hortik pasatzea oso garrantzitsua da garuneko artikulazio batzuk aktiba daitezten. Zesarea bidez jaio den haurrak aukera hori galdu du eta forzepsek lagunduta jaio direnen kasuan, kontuan izan behar da, tresna horiek oso hauskorak diren garuneko puntu batzuen gainean jartzen direla.

Ebaluazioa egin ondoren, zein da esku hartze prozesuan ematen duzuen hurrengo pausoa?

Haurra hainbat profesionalen ebaluatu dutenean, beraiekin harremanetan jartzen gara elkarrekin lan egiteko. Eta memento horretatik aurrera, haurren errealitatea ezagutzen laguntzen diguten datu guztiak ditugunean, berarekin hasten gara lanean.

Gure esku-hartzea psikomotrizitate eremuan, entzumen eremuan eta pedagogia eremuan egiten dugu batez

ere. Orduan, optometristak ikusmen terapia bat egitea beharrezkoa dela ikusten duen mementoan, zein ariketa egin behar ditugun esaten digu eta bera haurren jarraipen zehatza egiten doa.

Aipatu ditugun profesional horiekin harremana izateaz gain, eskolarekin ere ba al duzue harremanik? Haurren tutorearekin hitz egiten al duzue?

Bai. Behin ebaluazioa eginda, eta haurrekin lanean ari diren gainerako profesionalen emandako informazioa jaso ondoren, gurasoek arazorik jartzen ez badute, tutorearekin eta askotan irakasle laguntzailearekin ere harremanetan jartzen gara, ebaluazioaren emaitzak azaltzeko eta gure esku-hartzea eta esku hartzen ari diren gainerako profesionalen esku-hartzea nolakoa izango den jakinarazteko. Es-

kolarekin dugun harreman hori etengabea eta zuzena da. Era horretan, haurraren garapena elkarrekin ebaluatzen joan gaitezke.

Zergatik ikusten duzue beharrezkoa haur horien tutoreekin harremanetan egotea?

Bada, ikaslea egoera horretan egotearen arrazoen berri ematen diezunean, haurraren jokabide asko ulertzen dituztelako. Horrek, guztion artean haurrari lasaitasuna ematea dakar eta denborabat ematea, inguruandituen profesional guztien laguntzarekin, bere ikasketa prozesua nekezagoa egiten ari diren zailtasunak gainditzeko.

Nolakoa da haur horien gurasoekin duzuen harremana?

Gurasoekin dugun harremana oso estua da, kasu batzuetan esan dezakegu ia egunerokoa dela. Kontuan izan behar dugu zailtasunak dituzten seme-alabak dituzten gurasoak bereziki sentibera daudela eta askotan orientazioa behar izaten dutela ez dakitelako oso ongi egoera hori nola kontrolatu.

Esan diguzunez ia adin guztietako haurrekin egiten duzue lan. Zein adinetan ikusten dira emaitzak azkarrago?

Zalantzarik gabe, Haur Hezkuntzan dauden haurrengan ikusten dira

emaitzak azkarrago. Izan ere, adin horretan garuneko plastikotasun handia dute haurrek. Hori bai, horrek ez du esan nahi, inolaz ere, Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan lortzen diren emaitzak egokiak ez direnik.

Posible al da eskolan bertan alderdi horien guztien prebentzioa egitea?

Bai. Baina horretarako hezkuntza arloko profesionalok geure burua maila askotan trebatu behar dugu, egunero haurrek bidaltzen dizkiguten seinaleak ulertzeko moduan.

Zein dira maila horiek? Zer motatako prestakuntza beharko litzateke?

Trebakuntzak osoa izan behar luke. Haur batek zailtasunak izan ditzan eragin dezaketen aukera posible guztiak kontrolatu beharko genituzke. Maila neurosentsomotrizean prestakuntza sakona izan beharko genuke. Horretarako, gure prestakuntzak etengabea izan beharko luke.



Irakasleoren prestakuntza oso garrantzitsua dela uste dugu eta trebakuntza ikastaroak ematen dizkiegu. Donostiako eta Zarauzko Berritzeguneetan zenbait ikastaro eman ditugu. Ikastaro hauek, praktikoak dira batez ere, baina teoria izaten dute atzean beti. Edozein praktikaren atzean teoria bat izaten da eta teoria horretan etengabeko prestakuntza izatea oso garrantzitsua dela azpimarratu nahi izaten dugu.

Hainbat ikastetxetan ere trebatu ditugu irakasleak, Haur Hezkuntzan prebentzio programak aurrera eramateko helburuarekin.

Arte eszenikoak haurren eskura

Bilboko Kafe Antzokian

Bilboko Kafe Antzokiko arte eszenikoen haur eskolak aurtan ere indartsu hasiko du ikasturtea. Euskal Herrian arte eszenikoak ezagutzeko eta lantzeko haurrei zuzendutako euskarazko leku bakarra da berau, eta urtetik urtera arrakasta gehiago du, gainera. Gero eta haur gehiago biltzen dira bertan eta antolatzaileak pozarren daude. Aurtengo ikasturterako egiten den eskaintza hirukoitza da: antzerkia, musika eta dantza.

Zergatik eskaini haurrei arte eszenikoak lantzeko aukera? Galdera horren erantzuna garbi dute Bilboko Kafe Antzokian: garrantzitsua delako trebetasun horiek lantzea, zaletasuna dagoelako eta hori bultzatu egin behar delako eta arlo horietan profesionalki lan egin ez bizi nahi dutenei bidea hasteko aukera eskaini behar zaielako.

Arazoi horiek nahikoak izan ziren Arte Eszenikoen Eskola sortzeko. Musika eskola ireki zuten lehendabizi, gero antzerki eskola, eta aurtan dantza eskola estreinatuko dute. Gero eta haur gehiago hurbiltzen dira eta inork ez du bajarik ematen. Arrakasta dutenaren seinale. Alde batetik, gero eta garrantzi gehiago hartzen ari diren arloak ezagutzeko eta garatzeko aukera ematen zaie haurrei. Eta zergatik ari dira gero eta garrantzi gehiago hartzen? Antzerkia, dantza, musika eta abarren bitartez trebetasun ugari lantzen direlako: haurren dinamismoa, bat-batekotasuna, irudimena, sormena, harremanak eta abar. Bestetik, arlo horietan profesional

izan eta hortik bizi nahi duen jende asko dago eta Euskal Herrian horretarako aukerarik ez da eskaintzen; Madrilera, Sevillara, Bartzelonara edo Parisera joan beste aukerarik ez dago goi mailako ikasketak egiteko. Hori horrela izanik ere, Kafe Antzokiko arduradunei interesgarria iruditzen zaie goi mailara iritsi aurretik Euskal Herrian hastapeneko urratsak emateko aukera eskaintzea.

Antzerkiaren indarra

Antzerki eskolak erakartzen du jende gehien, eta horregatik erabaki dute aurtan Kafe Antzokiko eskaintza eskolara ere zabaltzea. Koldo Celestino Kafe Antzokiko kideak dioenez, "orain arte ez zitzaien garrantzi eta balio handirik ematen antzerkiari, dantzari eta horrelako arloei, ez eskolan eta ez hor-

tik kanpo. Gaur egun, berriz, gero eta gehiago aldarrikatzen dira. Orain arte bigarren mailako ikasketak zirenak gaur egun curriculumean sartuta daude". Askotan, ordea, irakasleek ez dakite zer eta nola landu, eta horretan laguntza luzatu zien Kafe Antzokiak. "Eskola orduetan antzerkia lantzeko eskaintza egin genien eta Bilboko bost ikastetxetatik jaso dugu baiezeko erantzuna. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailan antzerkia landuko dute". Haurrak gogotsu daude eta irakasleak ere bai, buru-belarri antzerkiaren munduan sartzeko prest. Ikastetxeetan prestatzen dituzten antzeztanek Kafe Antzokian antolatzen diren antzerki topaketetan eskainiko dira. "Zaletasuna badago, bereaz, hori garatu behar da teknika egokiek". •



Antzerki eskola

Eszenatoki baten gainean topa daitezkeen eduki eta teknikak haurren mundura hurbiltzen dira ikastaro honetan:

- inprobisazio jolasak
- jolas dramatikoak
- mozorrotze eta makillaje lanketa
- koreografiaren asmaketa
- sketxen lanketa
- gidioen azterketa eta asmakuntza
- txotxongiloen teknikara hurbilketa
- antzerki beltza

Antzerkiarekiko zaletasuna lantzeaz gain, haurren garapenerako beharrezkoak diren atalak jorratzen dira beste haurrekin batera publikoaren aurrean adierazten ikasteko: gorputzaren mugimenduak eta adierazpena, sormena, irudimena, bat-batekotasuna eta abar.

Adina: 8-11 urte

Data: urriaren 8tik ekainaren 9 arte. Astearteetan, 17:30-19:30

Prezioa: 110 euro hiruhilekoa. Laguntxoek: 65 euro hiruhilekoa.



Dantza eskola

Musika eta erritmoa uztarturik, era askotako koreografiak eta dantzak lantzen dira: dantza modernoa, dantza etnikoak, batuka eta sormenetik ateratzen diren dantza asmatuak eta berriak. Gorputzaren mugimenduak eta musika batera jarritz, norberaren barne adierazpen artistikoa azaleratzen saiatzen dira.

Adina eta data: asteazkenetan 5-11 urte bitartekoak

ostiraletan 12-14 urte bitartekoak

Prezioa: 65 euro hilehilekoa. Laguntxoek: 40 euro hiruhilekoa.

Musika eskola

Musikaren arloan hiru maila eskaintzen dira, bakoitzean lantzen dena desberdina delarik.

1- Musika hastapena (4, 5 eta 6 urte): entzunaldiak, fitxak, jolasak, kantuak, dantza, psikomotrizitatea eta perkusio musika tresnen bidez.

Data: astean bi egunetan (45 minutukoak)

Prezioa: 140 euro hiruhilekoa. Laguntxoek: 128 euro hiruhilekoa.

2- Lengoia musikala eta musika tresna (7 urtetik aurrera): astean bi egunetan izaten da. Egun batean erritmoa eta irakurketa, doinua, musikaren teoria eta diktaketa musikalak lantzen dira; eta bestean aukeratutako musika tresna: gitarra klasikoa, elektrikoa, soinua, trikitixa eta pianoa.

Adina:

7 urterekin: Lengoia musikalaren prestakuntza

8 urterekin: Lengoia musikalaren 1. maila

9 urterekin: Lengoia musikalaren 2. maila

10 urterekin: Lengoia musikalaren 3. maila

11 urterekin: Lengoia musikalaren 4. maila

Prezioa: 273 euro hiruhilekoa. Laguntxoek: 238 euro hiruhilekoa.

3- Solfeorik gabeko musika tresnak: haur zein helduentzat eskaintzen da ikastaro hau eta ez da musikarik jakin behar.

Data: astean behin, arratsaldeetan 17:15etik aurrera

Prezioa: 180 euro hiruhilekoa. Laguntxoek: 153 euro hiruhilekoa.

Informazio gehiago:

www.umegunea.org

rioz, sisteman kitapena gertatu zen.

Hortaz, diru ugari zegoen bankuko kontuetan eta horiek inbertitu eta koku behar ziren. Une zehatz hartan, erraz aurkitu zuten non kokatua. Bankuak, izugarriko likidotasunarekin, eta beste aldetik, independentzia lortu berri zuten hainbat eta hainbat herrialde barne aurrezki gabezia handiarekin. Gainera, herrialde horietan errentaren banaketa bidegabea izan ohi da; eliteek diru asko izan ohi dute, eta kanpoan inbertitzen dute. Beraz, ondorioz, barne aurrezki gutxi egon ohi da, gizarte garapenean inbertitzeko ezer gutxi.

Egoera horretan, kontu ezin ahala bankuk eta erakunde finantzariok, dirua eskaini zuten eta maileguak eman nahi zituzten. Zenbait kasutan, bankuek komisiok ordaintzen zizkieten arduradun politikoei euren herrialdeetarako maileguak eskatzeagatik, eta horrelako kasuak dokumentatuta daude. Beraz, mailegua kasu askotan ez da izango bi interesen erantzuna, baizik eta diru likidotzeko sortutako nazioarteko abagunearen ondorioa, batzuetan, eroskeria eta xantaia ere tartean izanik.

Zein dira kanpo zorraren bidegabekeria azaltzen duten ezaugarriak?

Kanpo zorrak, Iparraldeko herrialde aberatsen eta Hegoaldeko herrialde pobretuen egitura bidegabea erakusten du, eta bizi dugun globalizazio baztertzailaren adibide aproposa da. Kanpo zorraren kontuak agerian jarzen ditu egitura bidegabea, globalizazio baztertzaila zein munduan dagoen botere asimetria. Jende askoren bizitza aukerak mugatzen ditu, hezkuntza edo osasun eskubideak zapalduz.

Zorra berez ez da zuzengabea, baina zenbait kasutan bidegabea izan daiteke. Hartara, lau baldintza aipatu-

ko nituzte zor bat bidezkoa den ala ez frogatzeko.

Lehen baldintza, interesak elkarrenganakoak edo bi norabidetakoak izan behar duela da. Ni bankura banoa, niri interesatzen zaidalako da; argi dago banketxeak negozioa egiten duela, baina niri ere diru hori zerbaitetarako interesatzen zait. Hegoaldeko herrialdeek interesik ba al zuten mailegua eskatzeko? Kasu batzuetan bai, beste batzuetan ez. Lehen aipatu bezala, ez dakigu noiz den beraien interesa edo nazioarteko abaguneen eta banketxeen likidotasunaren ondorioa. Kasu batzuetan azpijokoak ere erabili ziren. Gaur egun, banketxe batek pertsona bati mailegu bat eman aurretik, itzul dezakeela ziurtatzen du aurrenik, ez baita hala arriskatuko, ez? Baina, noski, nik herrialde bati mailegu bat utziz gero, herrialde horrek ez du hanka egingo, ez? Garai haietan, maileguen politika guztiz arduragabea zen, diruak eskuak erretzen zizkien, eta ez zen zaila agintariak erostea maileguak eska zitzaizten. Beraz, lehen baldintza hori zalantzan jarriko nuke.

Bigarren baldintza, mailegua eskatzen den uneko baldintzek irauten dutela bermatzea da. Nik mailegu bat eskatzen dut kontuan izanez lana daukadala, lan hori ordainduko didatela eta nire bizitza premiak asetzen ditudala. Hau da, gai izango naizela mailegu hori ordaintzeko. Baina 80ko hamarkadako abagune esanguratsuan, herrialde ho-

Ez dago kanpo zorra berraztertzen duen erakunde independenterik. Hartu izan diren neurriak ordainketa bermatzera bideratu dira, eta ez herrialde horien garapen sustatzera.



rien ordaintzeko ahalmena bertan behera gelditu zen, beraiei ez zegozkien hainbat arrazoigatik: sarri, nazioarteko egoera eta alde bakarreko erabakienagatik. Hala, lehengaiak behera egin zuten, eta zorra ordaintzeko arazo larriak areagotu ziren, hala nola kafea eta kautxuaren shocka. Herrialde horien diru iturriak jaisteaz gain, maileguen interesak ere areagotu egin ziren, nazioarteko ekonomiaren ondorioz. Nazioarteko egoera horretan kontu batzuk oso esanguratsuk dira. Adibidez, Ronald Reaganek zuzendu zituen politika ekonomikoak, sobietar inperioaren aurrean mantentzeko armamentuak finantzatzeko eta beste proiektu batzuk aurrera eramateak, interesak areagotzea ekarri zuen eta hala, dolarraren balioa handitu zen. Beraz, herrialde haiek diru iturri minimoekin eta interesen igoearekin topo egin zuten, ezinean itota. Hortaz, mailegua egin zen uneko baldintzak erabat aldatu dira.

Hirugarren baldintza zorretan dagoenak berak ordaintzea da. Nik banketxe batean mailegu bat eskatuz gero, nik neuk ordaindu beharko dut eta ez beste inork, ez? Garai haietan, maileguak eskatu zituzten gobernu anitz legez kontrakoak ziren, bai junta militarretakoak, bai diktadoreak. Alabaina, zor hori ordaintzen ari direnak beste pertsona batzuk dira, gobernu hura hautatu ez zuten herritarrak.

Irtenbidea da, alde batetik kanpo zorrak arautzeko eta bideratzeko nazioarteko mekanismoak jartzea, eta bestetik kontu honi giza garapenaren ikuspegitik heltzea.

Eta azkenik, zor bat justua ez dela frogatzen digun funtsezko arrazoi bat dago: zor horrek pertsonengan eragina du, eta beraien bizitzak guztiz mugatuta daude. Badaude zenbait prozedura hori saihesteko; adibidez, galerara joan diren enpresetan ezinbestekoa da, lehenengo, langileei ordaintzea, edo bermeak jartzen dira zordun pertsonak gosez ez hiltzeko. Haatik, kanpo zorrarekin ez da hori gertatzen. Orduan, hauxe galdetu behar diogu geure buruari: zer da lehena, zorra ala bizitza? Beraz, pertsona askoren bizitzak jokoan daude-nean, hori planteatu behar dugu. Nik uste dut, kanpo zorretatik asko ez direla legezkoak, ez dituztela lau baldintza horiek betetzen.

Nola aldatu hori?

Zaila da. Izan ere, ez dago hori behatzen duen eta pertsonen oinarrizko eskubideak bermarazten dituen nazioarteko erakunderik. Enpresa batek ordainketa-etendura adierazten duenean, hori bideratzen eta kontrolatzen duten erakundeak daude, baina nazioartekoan ez dago halako erakunderik. Ez dago kanpo zorra berraztertzen duen erakunde independenterik. Hartzekodunek beraiek erabakitzen dute nola eta noiz ordaindu behar den. Bizi garen gizartearen ereduak islatzen du horrek, non ekonomia guztia herrialde gutxi batzuek antolatzen duten. Munduko bankua eta NMF nahiz antzeko nazioarteko erakundeak, finean herrialde aberats horiek kontrolatzen dituzte. Hainbat unetan herrialde aberats horiek kanpo zorrarentzako hainbat irtenbide iradoki dituzte. Jakina, pertsona batek banketxeari ordaindu ezean,

banku hori ez doa galerara. Baina herrialde askoren kanpo zorrak suposatzen duen diru iturriak izan ezean, kontua askoz korapilatsuagoa da. Ondorioz, hartu izan dituzten neurriak ordainketa bermatzera bideratu dira, eta ez herrialde horien garapena sustatzera. Kanpo zorraren gaiari beti ikuspegi finantziariotik heldu izan zaio.

Zein da irtenbidea?

Nik uste dut bi kontu argi izan behar ditugula. Alde batetik, argi izan behar dugu kanpo zor batzuk ez direla legezkoak, eta hori arautzeko eta bideratzeko nazioarteko mekanismoak ezarri beharko liratekeela. Zorrak legezkoak diren ala ez diren irizpena emango

duen epaitegi bat. Bestela, gaur egungo egoerarekin topo egiten dugu, non zorraren mekanismoa herrialdeak menperatzeko sistema den. Bestalde, kanpo zorraren kontuari giza garapenaren ikuspegitik heldu behar zaio. Giza garapena sustatzeko neurriak eta bideak behar dira.

Munduko Bankuak eta NMFk duela gutxi zorrak arintzeko neurriak hartu zituzten, eta finean, helburua, zorra jasangarria izatea da. Halere, kanpo zorra duten herrialdeekin, lehenago ikusi beharko litzateke ea zenbat baliabide behar dituzten aurrera egiteko, hots, giza garapenean, hezkuntzan eta osasunean inbertitzeko, eta ondoren, zenbat zorrak ordaintzeko. •

Lantzen diren GAIAK

1. gaia: Zer esan nahi du zorpetzeak?

- Mailegu baten oinarrizko funtzionamendua: amortizazioak, interesak eta interes motak.
- Zorraren zerbitzua: etengabeko zorpetzea.
- Oinarrizko adierazle ekonomikoak.
- Zorpetzea: alderdi positiboak eta negatiboak.

2. gaia: Nori eragiten dio zorrak?

- Kanpo zorraren eragina Hegoaldeko herrialdeetako emakumeen bizitzan.
- Zorpetzearen egoera herrialde jakinetan.
- Adostasun estrukturalen politikak: gizarte ondorioak eta ondorio ekonomikoak.
- Kanpo zorra eta baliabide naturalen ustiaketaren arteko harremana.
- Kanpo zorraren gizarte dimentsioa, ingurumen dimentsioa eta dimentsio politikoa eta ekonomikoa.

3. gaia: Nork zor dio nori?

- Zor historikoa, soziala eta ekologikoa.
- Zorpetzearen jatorria eta arrazoiak.
- Zordun herrialdeei kanpo zorrak dakartzkien inplikazio sozioekonomikoak.

4. gaia: Zer egin dezakegu hemen?

- Garapena: zenbait eredu.
- Egungo garapen ereduak.
- Zorraren baliogabetzea/kitatzea: balizko mekanismoak eta arriskuak.
- Kanpo zorraren arazoaren irtenbidea eskatzen duten gizarte zibileko ekimenak.
- Kanpo zorraren kontuarekiko balizko irtenbideak.

www.hikhasi.com

W e b a t a r i b e r r i t u a

k u x k u x e a x u
P r o i e k t u a k p a r t e k a x u
A r a k a x u

“klik”

“klik”

Nola antolatu tutoretza orduak? Zer egin



Hasteko, hauxe aipatuko dugu: gaur egun ez du zentzurik, artifiziala da, eta kaltegarria ere izan daiteke hezkuntza *versus* irakaskuntza planteamendua, hau da, bi horiek elkarren aurkajartzea tutoretzaren beharra justifikatzeko. Tutoretzaren garrantzia eta borondate hezitzailea ez da ez sortzen eta ez baieztatzen irakaskuntzarekin kontrajarrita; irakaskuntzaren jardunetik bertatik sortzen da, irakaskuntzaren zati da. Hau da, tutoretzako lana ez da aparteko lan bat, kanpoko zerbait edo irakaskuntza lanari atxikitako funtzio bat, baizik eta irakaskuntzako elementu nagusietako bat, eta estuki lotuta dago heziketa orientazioarekin.

Ikastetxeko lehendabiziko orientazio maila da tutoretza, eta heziketa lanean integratutako orientazio prozesuaren heinean, irakasle guztiak inplikatu behar dituzte. Horregatik, talde lanean oinarritzen da tutoretza, eta ekintza planifi-

Paki ARBE

EHUko IRAKASLEA

Aitor MARTXUETA

EHUko IRAKASLEA

katua eta koordinatua eskatzen du eskolako talde pedagogikoaren aldetik. Tutoretza garatzeko markoa eskolako curriculum da. Tutoretza lana ikasle talde guztiari zuzentzen zaio, ikasleari bere eskolatzeko prozesuan lagundu behar dio, hots, eskolatzeko etapa guztietan, bakoitzeko berezitasunak azpimarratuz eta ikasle bakoitzaren berezitasun eta ezaugarri propioak aitortuz. Tutoretza lana hezkuntza etapa bakoitzeko zi-

kloen arabera planifikatzen da, eta ikaslearen garapen integralari lagundu behar dio.

Tutorearen figura

Tutoretzaren ezaugarri horiekin batera tutorearen figura agertzen zaigu. Tutorea hezitzaileen koordinatzaile gisa agertzen zaigu, eta gelako ikasleentzat tutoretza lanaren arduradun nagusi gisa. Figura honen beharra ez dute eztabaidatu izan ez gaia lantzen duten adituek ez eta irakasleek ere. Horretarako arrazoi ugari daude: ikasleek ikasgai bakoitzeko irakasle desberdina dutela, zentroen funtzionamendu konplexua, ikasleek ingurunetik jasotzen dituzten eragin eta esperientzia askotarikoak lortu beharreko helburuekin alderatuta...

Tutoreak bere ardurapean dauden ikaslearen garapen personalizatua eta integrala zaintzeko konpromisoa bere

gain hartzen duela ulertuta, asko idatziz an da figura horri buruz. Edonola ere, ondokoa azpimarratzea komeni da: tutoretzak, denak inplikatur dauden heziketa ekintza kooperatibo gisa hartuta, ikasle talde batentzat tutore bat izendatzea gomendatzen duen arren, ez duela hezitzaile talde osoaren erantzukizuna mugatzen.

Zenbait kasutan, zentroek eta irakasleek tutoretzan planteatzen dituzten galderei taldean lan eginez ematen zaie erantzuna, taldean definituz eta adostuz Tutoretzaren Ekintza Plana. Irakasle guztientzat zentzua duen plana izaten da, eta guztientzat baliagarri dena. Eta noski, eskolako tutoretza lana ondo garatzeko ere bai.

Tutoretzaren Ekintza Plana

Tutoretzaren Ekintza Planean tutoretza lanaren helburuak eta ekintzak biltzen dira, eta horrek lan sistematikoa ahalbidetzen du. Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan biltzen diren printzipioak eta heziketa ekintzak biltzen ditu plan honek, eta irakasle guztiak tutoretza lanean jarraitu beharreko ildo komunak zehazten dira.

**Ikastetxeko heziketa
asmoei lotuta
dagoenez, ezin da
beste dokumentuak
aintzat hartu gabe
planifikatu tutoretza;
gainerako
dokumentuetan
jasotzen diren
heziketa eta
pedagogia ildoei
jarraitu behar die.**

Ikastetxeko heziketa asmoei lotuta dagoenez, ezin da beste dokumentuak aintzat hartu gabe planifikatu tutoretza; gainerako dokumentuetan jasotzen diren heziketa eta pedagogia ildoei jarraitu behar die. Marko horretan kokatuta zehazten dira antolaketa, tutoretzen funtzionamendurako eta ikasle taldearekin jarraitu beharreko ekintza ildoetarako irizpideak eta prozedurak. Ikasleekin indibidualki, familiarekin, heziketa taldearekin eta zentroarekin jarraitu beharrekoak zehazten dira, guztiak. Hori eginda, plana Ikastetxeko Curriculum Proiektuan txertatzen da, Heziketa Orientazioaren Planaren zati bihurtuz. Orientazio Sailarekin edo Berritzeguneekin (Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeen kasuan) eta tutoreekin batera egiten da, klastroak zehaztutako ildoak errespetatuz eta Koordinazio Pedagogikoko Batzordearen irizpideei jarraituz.

Zentzu horretan, adituen ustez, Tutoretzaren Ekintza Planak hainbatez auzgarri baldin baditu, plana erabilgarria izango da eta zentroetako tutoretza lanari laguntza emango dio. Adituek aipatzen dituzten ezaugarri horien artean hauek azpimarra daitezke:

- **Testuinguruan kokatua:** zentro bati lotutako proposamena denez, zentrotik sortu behar du, zentroaren autonomiatik. Horregatik, beharrezkoa da talde lan bat egitea, proposamenak jasotzeko, akordioak bilatzeko eta erabakiak hartzeko. Horrela baino ez baita sortuko proiektu egokia, eta egoera konkretu horri egokitua. Helburua tutoretza martxan jartzea edo lehen dagoena hobetzea da, eta beraz, irakasleak berea dela sentitu eta ikusi behar du, ez kanpotik ezarritakoa.

- **Bideragarria:** beharrezkoa da lortu nahi diren helburuak argi eta garbi adieraztea. Modu zehatzean eta errealistan formulatu behar dira helburuak. Bena-tan ikastetxeko beharrezko erantzuten dieten egiaztatu behar da. Aukeratuak, baloratuak eta lehenetsiak izan diren ikusi behar da, eta baita bideragarriak diren edo ez, ikastetxea aurkitzen den egoera kontuan hartuta.

**Tutoretzak, denak
inplikatur dauden
heziketa
ekintza
kooperatibo
gisa hartuta,
ikasle talde
batentzat tutore bat
izendatzea
gomendatzen duen
arren, ez du hezitzaile
talde osoaren
erantzukizuna
mugatzen.**



- **Adostua:** aipatu bezala, batez ere tutore taldeak egiten du plana, eta gainerako irakasleekin adosten da. Horrek esan nahi du funtsezkoa dela iradokizunak jasotzeko bideak eraikitzea, parte hartzea bultzatzea eta denak planaren partaide sentitzea, hori baita denek talde moduan onartzeko biderik egokiena.

- **Globala:** printzipioz tutoretzaren barruko hainbat alderdi eduki behar ditu kontuan: ikasle indibiduala, talde-gela, familiak, hezitzaile taldea eta ikastetxea.

- **Malgua:** praktika ikusirik, aldaketak egiteko irekita egon behar du, eta ebaluatzeko eta hobetzeko irizpideak eduki behar ditu.

Planaren faseak

Bestalde, plana martxan jartzeak fase batzuk pasatzea eskatzen du. Fase horiek koherentzia emango diote, eta tutoretza bere osotasunean eta konplexutasunean ulertuko dute. Aipatutako faseak edo etapak honako hauek dira: beharren identifikazioa, helburuak ezartzea, plangintza, ezarpena eta ja-



Taldeko tutoretzei dagokienez, taldea-gela ereduak da gure artean zabalduena, baina ez du zertan bakarra izan. Tutoretza talde txikiagoekin ere egin daiteke. Tutoretza partekatuak edo kotutoretzat ere egin daitezke.

rraipena, ebaluazioa eta hobekuntzarako erabakiak hartzea.

Plana ezartzerakoan ezin dugu hasi tutoretzak zerbait berria direla pentsatuz eta aurretikako esperientziak aintzat hartu gabe. Egia da zentro guztietan ez dela berdin ulertzen eta ez dela gauza bera egiten, baina garrantzitsua da gauden egoeratik abiatzea, dagoeneko eskura ditugun lorpenak adostea eta aurrera jotzeko zer behar dugun aztertzea. Alderdi biek, lorpenak eta beharrak, gune guztiak hartu behar dituzte bere barne (ikasle indibiduala, taldea, familiak, hezitzaile taldea eta zentroa), planteamendu global batetik.

Ikuspegi horretatik, tutoretza ekintzari modu zabal eta global batean erantzuna emateak abantaila asko dakartza. Hasteko, giza baliabideak eta baliabide materialak optimizatzeko aukera ematen du, eta eskola erkidegoko hartzaile guztiei galdera zehatzak eta bideragarriak egiteko ere bai. Betiere zentroaren egoerara eta ezarritako helburuetara egokituz.

Hartzaile askotarikoak aintzat hartuz diseinatzen bada Tutoretzaren Ekintza Plana, zentroan alde zuzen erabi-

litako kriterio metodologikoak, antolakuntzakoak, bitartekoak eta ekintzak aprobetxa daitezke. Tutoretzaren barruan sar daitezke eta koherentzia eta sistematizazio gehiago izango dute horrela.

Bigarrenik, tutoretza ekintza bere zabaltasun osoan aintzat hartzea funtsezkoa da hezkuntza etapa guztiak barnebiltzen dituen Tutoretzaren Ekintza Plana egiteko. Ikuspegi orokor bat eduki behar du eta egoera askotarikoak zehaztu eta horietara egokitu behar du.

Horretarako komenigarria da etapa bakoitzerako helburu zehatzak ezartzea eta ebaluaziorako proposamenak ere gehitzea. Ebaluazioek aldiro-aldiro berrikustea eta hobekuntzarako iradokizunak jasotzea erraztuko dute. Modu berean, diseinu aldetik ere kontuan izan behar da proposatzen diren ekintzek helburuak betetzeko balio izatea eta ikasturteko une desberdinetara eta esku hartzeko arlo desberdinetara egokitzea. Esate baterako, DBHn, gutxienez 2. zikloan, sartu behar den esku hartze konkretu bat honako hau da: ikasleek euren etorkizun akademiko-profesionala erabakitzeko gaitasuna hobetzea.

Bai bere dimentsio indibidual eta sozialagatik, bai bere baldintzengatik, garrantzi handia duen gaia da berari, eta ezin da modu arin eta azalekoan tratatu, ezin da DBHko 4. mailan hitzaldi batzuk emanda edo elkarizketa pertsonalak eginda geratu. Alderantziz, esku hartze sistematikoa eta luzea eskatzen du gai horrek eta tutoretza ekintzak garrantzi handia hartzen du bere garapenean eta ezarpenean.

Bestalde, lehen aipatu den moduan, etorkizunean egin behar den esku hartzea gehiago zehaztu behar da. Zehaztutako programa bat egin behar da eta hor jasoko da ikastetxe bakoitzean astero egingo den esku hartze mota.

Tutoretza motak

Taldeko tutoretzei dagokionez, taldea-gela ereduak da gure artean zabalduena dagoena, baina ez du zertan bakarra izan. Tutoretza talde txikiagoekin

ere egin daiteke. Tutoretza partekatuak edo kotutoretzak ere egin daitezke, hau da, talde bakoitzeko tutore bat eduki ordez, bi tutore izenda daitezke. Garbi dago, antolaketa bat edo beste hautatzeko hausnarketa kolektibo bat egin behar dela zentroan bertan, eta ez kanpotik jarritako irizpideei jarraitu, horrek ezin baitu ordezkatu barruko hausnarketa. Edozein kasutan, erabakiak hartzeko kontuan izan behar da denbora eskaini behar zaiela zentroko eta gelako bizi-tzako hainbat alderdiren antolaketari, informazioari eta tratamenduari.

Hainbat tutoreren eta irakasleren iritzia entzunda, argi dago tutoretzari ordu gutxiegi eskaintzen zaizkiola. Are gehiago bere osotasunean hartzen bada eta tutoretzaren ardura hartzea ordutegia betetzea baino gehiago dela ulertzen bada. Badirudi LOE lege berriak tutoretza indartzen duela eta irakaslearen lana saritzeko pizgarri laboralak eta ekonomikoak ezartzen dituela. Autonomia Erkidegoei egokituko zaie neurri horiek martxan jartzea. •

Hainbat tutoreren eta irakasleren iritzia entzunda, argi dago tutoretzari ordu gutxiegi eskaintzen zaizkiola. Are gehiago bere osotasunean hartzen bada eta tutoretzaren ardura hartzea ordutegia betetzea baino gehiago dela ulertzen bada. Badirudi aldaketak egiteko aukera ireki duela LOEk.

Bide eginean jarraitzen dugu zuen
ekarpenekin eta parte-hartze
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.



Hik Hasi proiektua irekia
den heinean, interesa duen edonoren
parte-hartzea gustu handiz hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxoa euskal
hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.

urria

berriak

Klandestinitatean egindako lana aitortu diete andereñoei

Hamalau urteko borroka luzea izan da, baina bere fruituak eman ditu. Frankismo garaian klandestinitatean lan egin zuten andereñoek lan egindako urteak Espainiako Gizarte Segurantzak kotizatutzat eman ditzan lortu dute. Hasiak dira dagoeneko eskariak egiten eta hemendik aurrera, zor zaiena jasoko dute.

Frankismo garaian euskaraz irakasten aritu ziren andereñoek lanean aritu ziren denbora Gizarte Segurantzaz kotizatu izan balute bezala hartzea lortu dute. Espainiako ministroen kontseiluak ekainaren 15ean onartutako dekretuak hala ezarri du. 1978. urtea baino lehen euskaraz irakasten aritu zirenei eragingo die Errege dekretuak, zehazki Espainiako Konstituzioa argitaratu baino lehen aritutakoei; hau da, 1978ko abenduaren 29a baino lehen lanean aritu zirenei. Bi saiakeren ondoren, iaz, hirugarren saiakeran ontzat eman zuten Espainiako Diputatuen Kongresuak andereño hauen lana aitortzea Eusko Alderdi Jeltzaleak aurkeztu zuen legez besteko proposamena onartuta. Urte haietan irakaskuntza arloa bere osotasunean euskaraz garatu zutenek edo ikasgairen bat euskaraz eman zutenek izango dute dirusariak jasotzeko aukera.

Lanean aritu ziren garaian, ez ziren Gizarte Segurantza sisteman sartu, klandestinitate egoeran lan egin zutelako. Orain berriz, pentsioak kobratzeko aukera izango dute eta horiek jasotzen ari zirenen kasuan, diru kopurua handituko dute. Espainiako gobernuak sei milioi euro bideratuko ditu zeregin horretara.

Eusko Jaurlaritzak 2003. urtean onartu zuen gai honi dagokion dekretua. Kasu honetan 1967-68 ikasturtera bitartean lanean aritu zirenak hartu zituzten kontuan. Izan ere, 1968. urtean legezatu zen Euskal Herrian, lehen ikastola: Bilboko Resurrección María de Azkue ikastola hain zuzen ere. Dekretu hark ezarri zuen, ikasturte horren aurretik lanean aritutakoei kurtsoko 3.000 euroko ordaina jasoko zutela eta irakasle lanetan ari zirenen bitartean giza aseguruaren bat zutenek, 1.000 eurokoa. Baina honek Araba, Bizkaia eta Gi-

puzkoako andereñoei baino ez zien eragiten. Nafarrak hortik kanpo geratu ziren.

Orain ordea, andereño guztiei eragingo die joan den ekainaren 15ean onartutako dekretuak. Guztira, 813 emakume dira onurak jasoko dituztenak. Baina gehiago ere izan daitezke, batzuekin harremanetan jartzerik ez baitute izan oraindik.

Dekretua onartuta, honek zehazten dituen onurak jasotzeko bidea zabaltea baino ez da falta. Irailaren 19an eta 20ean egin zituzten bilerak Gipuzkoan eta Bizkaian eta hor bideratu zituzten andereñoek eskaerak egiteko era, orriak eta informazioa. Norbaitek gai honen inguruko informaziorik beharko balu, Ikastolen Elkartera, Partaidera, Sortzen-Ikasbatuazera edo sindikatuetara jo dezake. Azaroaren 14ean amaituko da eskaerak aurkezteko epea.





Berandu samar, baina heldu da

Dekretua berandu samar etorri dela uste dute andereñoek eta pena dela idealismo handiz ikastolen proiektua aurrera atera zutenetako askok lortutakoa ezin ikustea, baina pozik daude era berean, azkenean, dagokiena jasotzeko bidean daudelako.

Kontxita Beitia, Mari Karmen Oiarbide, Nekane Auzmendi eta Maritxu Goikoetxearekin egoteko aukera izan dugu. Denek egin zuten lan irakasle bezala 1978. urtea baino lehen. Lehen hiru Gipuzkoan eta Maritxuk, Araban. Lan asko egin zuten ikastolen proiektuak aurrera egin zezan eta dekretuaren onarpenarekin gustura agertu zaizkigu.

Orain arte eman ez zaien onarpen ofiziala jaso dute, Maritxuk azpimarratu nahi izan duenez eta pozik daude. Pena bakarra beraien lankide izan ziren askok lortutakoa ezin ikustea da.

Urte gogor bezain politak izan ziren haiek andereño hauentzat. Gogorak, zenbait lekutan jasandako presioa handia izan zelako; politak, egiten zuten hartan sinesten zutelako, ilusio handia zutelako eta herriaren babesak ere garrantzi handia izan zuelako proiektu

hura aurrera ateratzerako orduan. “Orduan ez genuen erretiroan pentsatzen; nahikoa genuen ilusioarekin, idealismoarekin, herri honen neurria eskola bat erakitzen ari ginenaren kontzientziarekin”, dio Nekane.

Legalizazioa etorri izanak ere, ez zituen estuasunak alde batera utzi. “Lasaitasuna ekarri zigun alde batetik, jakina, baina baldintza gogorak jarri zizkiguten lokalei eta titulazioei zegokien ez eta momentu larriak bizi izan genituen”, jarraitu du Nekane. Tituludun jende euskaldunik ez zegoen eta titulua zuten askok ez zuten ikastoletan aritu nahi, lan hori ez zegoelako aitortua, Mari Karmenek dioenez. Baina nola hala moldatzen ziren, ikastoletatik kanpoko irakasleek tituluak utzita. Beste arazoetako bat, ikasleen kartillak ziren; fraileen eskoletan ikastoletako ikasleen kartillak bertako ikasleak balira bezala ateratzen zituzten fraileek eta horrela moldatzen ziren toki askotan. Elizak eman zuten laguntza handia izan zela esatean, ados daude denak.

Ikastolek aurrera egin bazuten, hiru arrazoi nagusik bultzatuta egin zutela ikusten dute. Alde batetik, euskara hutssezko irakaskuntza eskaintzea, besteetik neskak eta mutilak elkarrekin ikas-

ten aritzea (ordura arte ez zen horrelakorik) eta azkenik, ikastolak berarekin zekarren berrikuntza pedagogikoa. Horren sortzailea Elbira Zipitria izan zela azpimarratu nahi izan du Kontxitak, berak ireki zituela bideak pedagogikoki. Honek guztiak ikastolan ikasleak biltzerako orduan izan zuen eraginik, baina baziren urte batzuk pasata, seme-alabak beste eskola batzuetara eramaten zituzten gurasoak ere: “Hura abentura bat zen eta ziurtasuna nahi zuten. Batzuek abentura hartan eta gudan sinestu zuten eta horrela egin genuen aurrera”, dio Kontxitak. Gurasoen lana dena dela, ezinbestekoa izan zen, ikastolako lanetan parte hartzen zuten eta hori funtsezkoa izan zen. Herriak emandako laguntzaren garrantzia aipatzeaz ez dira nekatu lau andereñoak.

Esan digutenez, hasizirenean ez zuten pentsatzen hain gauza serioari oinarriak jartzen ari zirenik. Baina hala zen. Eta oinarri horiek ahalbidetu dute urteak joan urteak etorri ikastolek bizi-rik irautea.

Hurrengo bilera baterako zita zehazten utzi ditugu. Hemendik aurrera gauzak bere bidetik, bide onetik joatea espero dute denek. Dagokiena jasota, gustura daude.

Psikomotrizitate Praktikari buruzko jardunaldiak Gasteizen

UNED-Bergarako Psikomotrizitate Eskolak VIII. Psikomotrizitate Praktikari buruzko jardunaldiak antolatu ditu. Azaroaren 9, 10 eta 11an izango dira Gasteizko Europa Jauregian.

Jardunaldion helburua Psikomotrizitate Praktikan sakontzeko espazioa eta denbora ematea da, hala nola, giza bilakaera psikologikoaren garapenaren ulermenean eta familiarekiko harreman eta ikasketetan.

Horretarako, honako egitaraua prestatu dute:

Azaroak 9

17:00 Material banaketa

18:00 Jardunaldien hasiera

18:15-20:30 Hitzaldia: **Carles Parellada** irakaslea eta psikomotrizista.

Gaia: *"Ikusi, behatu, hauteman: psikomotrizitatearen begirada, familia eta eskolaren arteko zubia"*.

Azaroak 10

9:30-13:30 Hitzaldia: **Albeto Lasa** haur psikiatra.

Gaia: *"Jo, korrika egin, salto egin, pentsatu: ekintzatik fantasiara haurren agresibitatearen bilakaeran"*.

15:30 **Luz Verde** antzerki taldea: Paloma Pedreroren *"Resguardo personal y otros momentos"*. Luz Verde an-

tzerki taldea 1995. urtean sortu zen Arabako Osasun Mentaleko Errehabilitazio Komunitarioko Zerbitzuak garatzen zituen jarduerak zirela-eta.

16:00-20:00 Hitzaldia: **Bernard Acouturier** Psimotrizitate Praktikaren sortzailea eta Asefop-eko presidente sortzailea.

Gaia: *"Psikomotrizista, hezkuntza eta terapeutika arloko psikomotrizitate laguntzan parte hartzen duen pertsona"*.

1. Haurrari laguntzeko prozesuan psikomotrizistak egin beharreko aukera filosofiko, psikologiko eta pedagogikoak.

2. Psikomotrizistaren jarrera sistema.

3. Psikomotrizistaren ekintza sistemaren beharra.

4. Psikomotrista, haurrarentzat desberdina den eredu hori.

Azaroak 11

9:30-13:30 Hitzaldia: **Bernard Acouturier**.

Gaia: jarraipena: *"Psikomotrizista, hezkuntza eta terapeutika arloko psikomotrizitate laguntzan parte hartzen duen pertsona"*.

Jarraian: Gogoeta orokorra eta ma-



hai ingurua. Parte-hartzaileak: **Bernard Acouturier, Carles Parellada** eta **Bergarako Luzaro Psikomotrizitate Eskolako irakasleak**.

Matrikula epea: azaroak 3.

Prezioa: 200 euro.

2007. urtean Bergarako Luzaro Psikomotrizitate Eskolan ikasten aritu diren hezkuntza eta laguntza formazioko ikasleek: 105 euro.

Ordaintzeko modua: banku transferentzia bidez honako kontu honetan dirua sartuta: 2101007081001159566.7 Gipuzkoa Donostia Kutxa, Bergarako sukurtsala.

Informazio gehiago:

Tel.: 943 769 033

E-posta: info@bergara.uned.es

Ikastaroak

* **UEUren udazkeneko ikastaroen eskaintza:** Nazioarteko gaiak, Feminismoaren historiak eta ekoizpenak, Nazioarteko geopolitikan aktore berrien agertzea, Barreterapia, Hizkuntzalaritza, Euskara: Araugintza II, Autocad 3 dimentsiotan, Web semantiko minuskulaz, mikroformatuak eta beste teknologia, podcasting eta eduki sindikazioa, Ipuinen mekanika, Aromaterapia eta sendabelarrak, Zelako idazkera halako izaera: Grafologia, Komunikazio eraginkorreko teknikak eta Oreka emozionalerako terapia naturalak. **Izena emateko epea:** urriak 9 arte. **Informazio gehiago:** www.ueu.org

* **Hezkidetzan aditua Noiz:** urriaren 3tik 2008ko martxoaren 8a arte. **Non:** Bizkaiko Urtxintxa eskolan. **Izen ematea eta informazio gehiago:** berdintasuna@urtxintxaeskola.org / www.urtxintxaeskola.org

* **Sexu hezkuntzarako trebakuntza ikastaroa Noiz:** urriak 15, 18, 22, 25 eta 29, 16:00etatik 20:00etara. **Non:** Andraizen, Iruñea. **Izen ematea eta informazio gehiago:** Nafarroako Gazte Kontseilua, Zangoza kalea, Iruñea.

* **EAEko curriculum berria eta konpetentzien inguruko prestakuntza eskaintza. Informazio gehiago:** Berritzeguneetan.

Erregio eta Gutxiengoen Hizkuntzen Itunaren hutsuneak agertu dizkie Sortzen-Ikasbatuazek Europako Kontseiluko adituei

Sortzen-Ikasbatuaz elkarteak Europako Kontseiluko adituei Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Itunari buruzko iritzia eman die. Irailean estatu espainiarrera etorri ziren adituak aipatu itunaren egoera aztertzeraz. Euskalgingtzako zenbait eragilek eurekin egoteko aukera izan zuten eta beren kezka agertu zuten itunaren hainbat puntu ez direlako betetzen. Verna Crnic-Grotic, Alberto Lopez Basaguren eta Dieter Kolonovits adituekin eta Sonia Parayre Kontseiluko idazkariarekin elkartu ziren.

Hasteko, Sortzen-Ikasbatuazeko kideek euskalgingtzari dagokionez eskola publikoaren beharrak zein diren azaldu zuten. Horrekin batera, Itunak jasotzen duen azterketa eremua Euskal Herri osoara zabaltzea ere eskatu zuten. Une honetan estatu espainiarrak ez ditu sartzen Itunean Nafarroako zonalde mistoa eta ez euskalduna. Frantziak, bestalde, Ituna sinatu gabe dauka, eta beraz, Ipar Euskal Herria akordiotik at geratzen da.

Gauzak horrela, agindutako konpromisioak betetzea eta beste zenbaitetan urrats berriak ematea eskatu zieten Sortzen-Ikasbatuazeko kideek. Besteak beste, honako puntu hauek mahaigaineratu zituzten:

1.- Derrigorrezko Hezkuntzari dagokionez, aipatutako zonaldeetan euskaraz irakasteko konpromisioa ez da erabat betetzen. Gaurko eredu linguistikoaren politikak emaitza baikorrak izatea eragozten du. Zonalde horietako ikasleek hamarretik lauk ikasiko dituzte erabiltzaile gisa ofizialak diren bi hizkuntzak. Premiazkoa da Hizkuntza Politika aldaketa. Estatu bereko beste politika batzuek gauzak hobeto egitea posible dela erakusten dute.

2.- Lanbide Heziketan, berriz, ez da urrutitik ere hartutako konpromisioa betetzen; hau da, ikasleei ez zaie euskaraz ikastea bermatzen.

3.- Ikastetxeetan lantzen den curriculumetan Euskal Herria eta berezko kultura ez dira kontuan hartuak, desitxuratuak gelditzen direlarik zenbait puntutan (historia, geografia...)

4.- Irakasle Eskolek bermatu behar lukete langileria elebiduna, baina gaur egun, garbi dago Irakasle Eskola gehienetan irakasle elebakarrak formatzen jarraitzen dutela, euskaraz irakasteko gaitasunik ez dutenak. Noski, horiek ere euskal kulturaren jabe izatea ezinbestekoa da.

5.- Hizkuntza gutxituen inguruan, hartutako neurrien jarraipena eta eba-

luazioa egiteko agindua zabaldua dagoen arren, azterketa horiek ez dira eremu guztietan egiten eta, egiten diren kasuetan, ez daude eragileen eskuetan.

6.- Hezkuntzan euskararen irakaskuntza aipatutako eremuetatik kanpo zabaltzeko konpromisioa hartua du Itunean estatu espainiarrak, horretarako aukerak bermatuz. Haatik, Nafarroako zonalde mistoa eta hor gertatzen diren "sarraskiak" aipatu ere ez dira egiten txostenean (euskarazko irakaskuntzaren eskaerari ez erantzuteaz gain, oztopoak ere jartzen zaizkio). Bestetik, A eredia aipatzen du zonalde ez euskaldunean euskararen zabaltzaile gisa. Egoera horien nondik norakoak salatu zituzten aditu taldearen aurrean.

Sortzen-Ikasbatuaz ustez, benetako urratsa emateko garaia da hizkuntza eskubideei dagokienez. Aditu taldearen erantzuna guztiz baikorra izan zela adierazi dute. Europan hizkuntza gutxitu ugari daudenez, errealitatea kokatzeko baliagarri izan omen zitzaien Sortzen-Ikasbatuazekoek azaldutakoa. Aurkeztu zieten txostena interes handiarekin jarraitzeaz gain, asko eskertu zuten eskaintako laguntza eta egiten ari diren lana.

Eskerrik asko, Rikardo!



Udazkeneko hostoekin batera zendu zaigu Rikardo Ederria. Euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren alde etenik gabe jardun du nafarrak bizitza osoan zehar. Nafarroako irakaskuntza publikoan D ereduaren alde aritu zen hasiera-hasieratik, Sortzen-en koordinatzaile izan zen, gero Sortzen-Ikasbatuaz Nafarroako koordina-

tzaile, elkarte horren barruan "Euskaraz mintzo" egitasmoaren sustatzaile. Azken urteotan Dindaia Fundazioa sortu zuen eskolaz kanpoko jardueretan euskararen kalitatea eta presentzia bermatzeko xedez. Hik Hasin ere aldamean izan dugu gure ibilbide guztian zehar.

Eskerrik asko guztiagatik, Rikardo!

Euskara-ingelesa eta ingelesa-euskara hiztegi berria eskura dugu

Elhuyar Fundazioak eta Elkar argitaletxeak *Elhuyar dictionary/hiztegia* kaleratu berri dute. Hiztegi berri honek euskara-ingelesa eta ingelesa-euskara zuzen-zuzenean kontsultatzeko eta erabiltzeko modua eskaintzen du, tartean beste hizkuntzarik erabili gabe. Horixe da, hain zuzen ere, hiztegi honen eginkizuna: euskaldunok ingeleserako jauzia egiteko erdaren makulurik behar ez izatea.

Bereziki ikasleentzat prestaturiko hiztegia da eta tamaina, formatu eta informazio aldetik oso hiztegi praktikoa dela azpimarratu dute egileek. Edukiari dagokionez, berriz, trinkoa eta eduki handikoa.

Elhuyar Fundazioaren eta Elkar argitaletxearen elkarlanaren fruitu bat gehiago da, hau da, lehendik ere elkarrekin argitaratuak dituzten hiztegien bilduma osatzera dator produktu berri hau. Horrela, euskara-frantsesa/frantsesa-euskara, euskara-alemana/alemana-euskara, euskara-gaztelania/gaztelania-euskara eta euskara-errusiera/errusiera-euskara hiztegiez gain, euskara-ingelesa/ingelesa-euskara ere eskura dugu orain. Itziar Nogerak Elhuyar Fundazioko zuzendari nagusiak adierazitakoaren arabera, "elkarte bion kezka da eta, era berean, garrantzi handia ematen diogu euskal hiztunok erabiltzen ditugun beste erdal hizkuntzeekin harreman zuzena egin ahal izateari. Horregatik, hiztegi hau, gainerakoak bezala, baliabide garrantzitsua da". In-


geleserantz euskaratik eta euskararen bidez abiatzeko tresna izatea du xede.

11 laguneko lantaldea aritu da bi urtez hiztegia osatzen. Elixabete Etxeberriak egin ditu zuzendari lanak eta harekin batera aritu dira diseinuan Antton Gurrutxaga, aholkulari eta zuzentzaile lanetan Antton Garikano eta Sarah J. Turtle, erredaktore gisa Irati Bereau, Aiora Jaka eta Sahats Ugartetxea, maketazioan Mari karmen Urdangarin eta diseinu informatikoa egiten Pili Lizaso, Edurne Martinez eta Mario Susperregi.

Elixabete Etxeberriaren hitzetan, "hiztegia egiteko bi elementu izan dira ezinbestekoak: talde lana eta oinarri teknologikoa".

Oinarri teknologikoari dagokionez, Elhuyar Fundazioak azken urteotan osatu duen datu basea erabili dute. Elhuyarrek eta Elkarrek argitaratu dituzten hizkuntza hiztegi guztiak datu base horren arabera diseinatuta daude eta baliabide lexiko-grafiko horrek produktu horien kalitatea eta koherentzia bermatzeko aukera ematen du.

Emaitza paperezko hiztegia bada ere, hemendik aurrera beste euskarrietan argitaratzeko asmoa garbi agertu dute eta jada horretan buru-belarri ari direla adierazi ere bai. Horrez gain, Elixabete Etxeberriak argi utzi du erabiltzaileekin feed-back-a lortu nahi dutela. "Hurrengo edizioei begira, guretzat funtsezkoa da erabiltzaileen era guztietako oharrak eta iradokizunak jasotzea, eta asko eskertuko dugu".



Hiztegiaren ezaugarriak

- 34.000 hiztegi-unitate bi ataletan banatuta: euskara-ingelesa eta ingeles-basque.

- Lexiko arruntaz edo orokorraz gain, lexiko teknikoa eta espezializatu, bakoitza dagokion jakintza alor markaz adierazita.

- Hitz anitzeko hizkuntza unitateak: hitz elkarreak, terminoak, esapideak, gramatika egiturak, phrasal verbs,...

- Era askotako oharrak: esanahiari edo sematikari buruzkoak, erabilerari buruzkoak, eremu geografikoari dagozkionak...


- 12.000 adibidetik gora bi hizkuntzen arteko baliokidetzak argitzen laguntzeko.

- 25 orrialdeko eranskina erdian: munduko estatu eta herritarren izenak euskaraz eta ingelesez, gramatika arloko hainbat gai eta ingelesezko neuri eta pisuei buruzko argibideak.

- Denera 830 orrialde.



argitalpenak



Euskal Hiztegia
Ibon Sarasola Errazti
ELKAR

Euskal Hiztegiaren bigarren argitaldia da. 1996ko lehen edizioaren testua berridatzi du Sarasolak, Euskaltzaindiaren arauetara eta 2000. urteko Hiztegi Batura egokitzeko. Horren ondorioz, 2.500 bat sarrera berri ditu hiztegiak. Egituraketa berdintsua da, baina adiera bakoitzak paragrafo bat osatzen du eta errazagoa izango da bilatzen ari garena aurkitzea •



Euskaldunen jatorria.
Populazioaren genetikaren argitan
Joan Ignazio Abrisketa, Alfontso
Martinez Lizarduikoa
GAIK

Euskaldunon jatorria aztertu dute egileek. Egungo paleoantropologiak, populazioen genetikak, paleohizkuntzalaritzak eta mitologia konparatuak euskaldunon jatorriaren inguruan datu berriak eta esanguratsuak eman dizkigute eta horiek aurkezten dizkigute lan honetan •



Bat Soziolinguistika aldizkaria
63. zenbakia

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskararen erabilera eskola-orduz kanpo. Hori da ale honetan landu duten gaia. Hainbat alderdi landu dituzte: egoeraren deskribapena egin ondoren, eskola-orduz kanpoko esparruan eragiteko egitasmoak, egitasmo zehatzak, udaletako eskaintza eta hezitzaileen papera aztertu dituzte hainbat egilek Bat Soziolinguistika aldizkariaren azken alean •



Mokozabala Urdaibai Biosfera Erreserban: hamar urteko jarraipena
Joseba del Villar, Rafael Garaita,
Amador Prieto
EUSKO JAURLARITZA
INGURUMEN ETA LURRALDE
ANTOLAMENDU SAILA

Urdaibai biosfera Erreserban bizi den mokozabalaren inguruan Eusko Jaurlaritzak 1996az geroztik egindako lanaren berri eman digute liburu honetan. Zehazki, hegazti horri hamar urtean egindako jarraipenaren berri •



Herritarren partaidetza uraren esparru zuzentarauaren baitan
EUROPAKO BATZORDEA,
INGURUMEN ZUZENDARITZA
NAGUSIA

Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2000. urtean onartutako zuzentarauaren 14. artikulua dio, guztiok parte hartu behar dugula zuzentaraua aplikatzeko eta gida honek horretarako lagungarri izan nahi du. Herritarrek gai horretan inplikatzeko tresna erabilgarria izatea nahi dute •



Iparraldeko basamortua
Rodriguez & Fernandez
SAURE ARGITALETXEA

Saure Argitaletxeak duen *Txanoa* bildumaren bigarren zenbakia da komiki liburu hau. Istorioa Australian gertatzen den arren, gure artean ohikoak diren gaiei heltzen die liburuak: pobrezia, immigrazioa edota norbere mugak gainditzeko gaitasuna. Haur baten ikuspegitik lantzen du immigrazioaren gaia •

... nora joango gara?

MENDUKILO LEIZEA Seigarren kontinentera bisita

Lur-azpia ezagutzeko aukera polita ematen digu Mendukilo leizeak. Mendiko ikuilua zen inguruko artzaiantzat, bertan sartzen baitzuten ganadua eguraldi kaskarra egiten zuen egunetan eta hain zuzen ere, hortik datorkio izena Astitzen dagoen kobazuloari. Bertako arduradunek diotenez, konkistatu gabeko seigarren kontinentea da lur-azpia. Bere gainean bizi garen arren, gehienontzat oso ezezaguna da eta gehiago ezagut dezagun atondu dute leizea; Aralarko erraiak bertatik bertara ikusiz, mundu ezagun honi buruz gehiago ikas dezagun.

Bisitaren amaieran gelaren erdian jarri eta isil-isilik eta ilunpean pasatzen dituzten 40 segundoak dira Mendukilora doazeneztat unerik politena, magikoena. Begiek garrantzi gutxi dute orduan, eta belarrietatik sartzen zaigun informazioari esker sentituko dugu koba barneko bizitza. Gutxik izan dute hori sentitzeko aukera eta Eneko Agirre Mendukiloko gerenteak esan digunez, hori da jendeak gehien atsegin duen mementoa.

Mendukiloren ahoa iparraldera begira dago, hotza da (urte osoan zehar tenperaturak ez du 8-10 cº baino gorago egiten) eta horregatik ez da inoiz pertsonarik bizi izan kobazuloan. Saguzarrak, muxarrak, azeriak eta honzak noiznahi ikusten dira sarrera ingu-

ruan, ordea, baina koban bizi diren izakien artean, troglobioak dira arreta gehien erakartzen dutenak. Troglobioak kobazuloetako berezko biztanleak dira, bertatik ateratzen ez direnak. Txikiak izaten dira, intsektuen antzekoak eta ez dute ez kolorerik ezta begirik ere. Antena handi batzuekin hartzen diote tamaina inguruari. Aralarren asko daude eta ez hori soilik, munduan beste inon ez dauden espezieak aurki daitezke.

Bi urte pasatxo daramatza Mendukilok ateak zabalik, sarrera hogeitaz horra batek estalia egon ondoren. Kobazuloaren atonketa lur-azpiko munduarekin ahalik eta errespetagarriena izaten saiatu ziren, horretarako desmontagarriak diren egiturak eta zaldain flotakorrrak erabiliz. Kobak dituen sei geletatik hirutan horrelakorik sartzeko aukerarik ez zenez, bere ho-

rretan utzi zituzten hormak ez puska-tzearren eta hiru gela bisita daitezke gaur egun:

Artzainzulo: sarrerako gela da eta argi naturala du. Formazio geologiko xumeak ikus daitezke bertan.

Laminosin: formazio geologikoen aniztasuna eta kopurua handia da hemen: estalaktitak, estalagmitak, zuta-beak, errezelak, gourgs-ak... Amaieran lakua du.

Herensugearen gotorlekua: oso handia da (55 metro luze eta 20 metro-tik gorako altuera du puntu batzuetan).

Bisita ezin daitezkeen gelak Gerlariaren gela, Intxixuen gordelekua eta Laminosineko amaierako gela dira.

Era berean, hiru estazio klimatiko jarri zituzten koba barnean, bere karga gaitasuna zein ote den jakiteko, hau da, bere klimatikak batere sufritu gabe koban zenbat pertsona sar daitezkeen jakiteko.

Baina argiztapena da atonketaren alderdi garrantzitsuenetako bat. Sekula argi izpirik sartu ez den leku bat argiztatzea ez da gauza erraza eta gainera, kobazuloa kalte dezake. Horregatik, ar-



Mendukiloko lantaldea. Ezkerretik eskuinera: Miren Larburu, Soiartze Lopetegi, Maribel Begiristain eta Eneko Agirre.



giztapen dinamikoa du leizeak eta bisita argiei jarraituz egiten da. Ez dago lau minutuz baino gehiago piztuta dagoen fokurik. Haur txikien kasuan, zaila izaten da denbora epe horretan talde osoa alde batetik bestera mugitzea eta argi guztiak pizten dituzte %50eko intentsitatearekin. Bisita laburragoa izaten da gainera kasu horietan, 40 minutukoa.

Sarrerako hesia ere berezia da; bertako animaliak arazorik gabe sar eta atera daitezten prestaturak dago. Izan ere, ferra saguzarrak bestela, ezingo luke kobatik irten eta atera, hegan egiteko modu mugatua duelako.

Koba, jendeak lur-azpia ezagut dezan atondu dutela esan digu Enekok. Bere hitzetan, koba hau "ukituz" nolabait, Aralarko mendizerra osoa babestea litzateke azken helmuga. Izan ere, Aralarrek badu paradoxa bat: Gipuzkoako eremua parke natural izendaturak dagoen arren, ez da gauza bera gertatzen Nafarroako lurretan dagoen zatia-rekin. Mendukiloko arduradunek, beste hainbat pertsonak bezala, Aralar geoparke izendatzea nahiko lukete. Era horretan, mendizerra kanpotik eta barrutik zaintzea errazagoa litzateke. Eta horixe da helburua, lur-azpia kalte-gabe gure begien aurrean jartzea. •

MENDUKILO LEIZE TURISTIKOA

Astitzko kobazuloak
Plazaola, 21
31670 LEKUNBERRI (Nafarroa)
Telefona: 948 396 095 7 Faxa: 948 507 333
mendukilo@mendukilo.com
www.mendukilo.com



Oharrak:

- Bisitak 50 minutukoak dira.
- Bere kasa bi pixu igo eta jaitsi ditzakeen orok du bertara sartzeko aukera.
- 8-10 C° temperatura egiten du urtean zehar; beraz, egun beroetan ere, arropa egokia eramatea komeni da, baita oinetako egokiak ere.
- Ikasleek bisita berezia eta egokitua egiten dute 5?-ren truke.

Nolakoa da bisita bat Mendukilon?

Kobaren kanpoko aldean harrera etxea dago. Bertan, ikus-entzunezko gela, lur-azpia balitz bezala egokitutako gela eta karstaren maketa daude.

Ikasleak iristen direnean, materiala aurkezten diete lehenik, guztia nola joango den eta zer aztertu eta ezagutuko duten ikus dezaten. Ondoren, 50 ikasle inguru joaten badira, bi talde egiten dituzte (kobara printzipioz ezin dira 25-30 pertsonak osatutakoak baino talde handiagoak sartu). Batzuk kobara doaz eta besteak harrera etxean geratzen dira. Azken horiei, 15 minutuko ikus-entzunezkoa jartzen diete eta karstaren maketa ikusten dute beraiekin. Amaitzean, aldaketa egiten dute bi taldeek (30 minutu egiten dira kobarako sarrerak). 50 ikaslerekin, bi ordu eta bi ordu eta erdi artean ematen dituzte ekipamenduan. Ikastetxe batzuek gaia landu nahi izaten dute eta denbora tarte hori beharrezkoa da; ibilaldi bat egitera doazenen kasuan, laburragoa izaten da (ordu eta erdi inguru).

Bisiten helburua eskolan ikasitakoa osatzea eta praktikan ikustea da.

Ingurumen Hezkuntza programa. Zer lantzen da ziklo bakoitzean?

LH 1. zikloa: IRAGANEKO AZTARNAK ARALARREN. Leizetan nor bizi zen eta nork lo egiten zuen aztertzen dute ikasleek.

LH 2. eta 3. zikloa: MENDUKILOKO ALTXORAREN BILA. Eraketa geologikoak nola sortzen diren aztertzen dute: estalaktitak, estalagmitak...

DBH 1. zikloa: MENDUKILO: LUR-AZPIKO MUNDURA BIDAIA BAT. Programa honekin sakonago aztertzen dute eraketa geologikoak nola sortzen diren.

DBH 2. zikloa: MENDUKILO ESPLORATZEN. Ziklo honetan jorratzen diren gaiak espeleologoaren lana, leizeetako paisaia, uraren bidea, troglobioak... dira.

BATXILLERGOA: MENDUKILO TXOSTENA. Leizea zaintzea eta jendeari zabaltea bateragarriak al dira? Galdera horri erantzuten saiatuko dira ikasleak AMIA azterketa bat osatuz (Ahuleziak, Mehatxuak, Indarguneak eta Aukerak aztertuz) eta amaieran txosten bat burutuz.

Zer egin daiteke kobaren inguruetan?

Mendukiloko koba ARALAR ABENTURA BIZIA izeneko Ingurumen Hezkuntza-programa zabalago baten parte da. Programa hau goiza edo egun osoa inguru horietan pasa nahi duten ikastetxeei eskaintzen zaie eta horretarako, zonaldean lan horretan diharduten hainbat ekipamendu elkartu dira:

- Mendukiloko leizea. Ibilbide botaniko bat eta Aitzarratetako iturburuko (Iribas) ibilbide interpretatiboa ere eskaintzen dira.
- Beigorri abentura parkea. www.beigorriabentura.com. Telefona: 609 044 071
- Plazaolako bide berdea. www.plazaola.org. Telefona: 948 507 205

atzeko atetik



© Zaldi Ero

Miren Agur MEABE

IDAZLEA ETA GILTZA ARGITALETXEKO EDITOREA

Aireak harrotu egiten zuen belarra, eta kilkerren kantuak airea harrotzen zuen. Bere gurdian iristen ari zen Doltza, apur batean geratu eta laster alde egiteko, zerumuga deika baitzuen beti.

Kontalaria zen Doltza, eta liburu bat bezalakoa zen haren memoria. Horregatik estimatzen zuen papera, eskas baitzebilen, komentuetan eta jaun eskribauen artean ez bazen. Paper faltan, pago eta haltzen hostoak batzen zituen berak, ihartzen ipini, eta gero, orratzarekin, ikur bana egiteko, zela eguzkia, zela ilargia, zela eraztun bat edo koroa, lamiaren oina, herensugea edo gurutzea, arraina, begia edo suzko bola. Ikur horiek laguntzen zioten lehendik ikasitakoa eta unean ikasi berria oroitzen.

Jende aldra bat zetorren zelaira, ezpatak eta trapauek eskuetan. Doltzaren berbal-

Doltzaren desditxa

dia entzun eta gero, sua piztu zuten. "Artoak, gariak, gorde, gorde. Sorginak, sasiak, erre, erre" esan zuten irrintzika, eta suaren inguruan egin zuten dantzan. Halaxe behar zuen gau hartan.

Dantzan zebilela, Johannes grabatzai-learengana joan zitzaion gogoia Doltzari, beronen oinek ihintzez bustiriko lurrean urratsa inprimatzen zuten lez, Johannesen berunezko xaflatxoak ere bizkor dantzatu eta letren markak uzten baitzituzten pape-rean. Maguncian erakutsi zion lagin bat, hatz-mamiak beti masusta-urez bezala belztuta izaten zituen lagun hark:

- Bibliaren berrogeita bi lerro dira. Laster, sormena, eskuz ez ezik, asmakari hau medio isuriko da liburuetara.

Gero, loak hartu zen Doltza. Ametsetan hareazko erlojutzar bat ikusi zuen, zeinaren barruan liburuak biratzen ziren alde batetik bestera. Baziren kolore bakarrekoak eta kolore askotakoak; baziren lerroak, zenbakiak, geziak, letra xehe nahiz larriak zituzten liburuak; baziren ez soilik latinezkoak, baizik eta euskarazkoak, eta beste mintzaira askotakoak, denak arrotzak bezain ederrak; baziren milaka liburu zehatz

bezain ulergaitzak, mila ispilutan islaturiko mila harribitxi bezain asaldagarriak.

Halako batean, esnatu zelarik, Doltzak pisutsu sentitu zuen burua, eta ikaratu egin zen eskuetako zimurrak ikustean. Hain luzaro egon ote zen, bada, lotan? Zelaian burdinazko dorreak zeuden, elkarri lotuak lautearen soken antzeko hari distiratsuz. Orduan, ahotsen algara entzun zuen, eta ikusi zuen bazetorrela jendea, besoetan zerbait. Iluntzen ari zuen berriz eta sua piztera zetozen.

- Zerekin egingo duzue sua? -galdetu zien.

- Liburu usatuekin, koaderno zaharrek... -erantzun zioten.

Doltzak bularra kiskaltzen sumatu zuen, paper zaharra hura ere. "Liburu bat erretzen denean, zerk igotzen du zerura, kearen baitan?" pentsatu, eta nahigabeak hartu zuen mendean. Gero, gurdia inon ageri ez, eta oinez abiatu zen zerumugarantz, deika bezala sentitzen baitzuen, beti lez, baina jakinik oraingoan ez zela urrunera helduko, eromena edo agian, heriotza bera, zain zeukalako edozein bidegurutzetan. ●



6 urte arteko haurrek egunean 300 aldiz egiten dute barre; helduek, aldiz, 15-100 bitartean.

Iturria: Association of Applied and Therapeutic Humor

VI. Euskal Herriko baliabide pedagogikoen GIDA

hik hasi

EUSKAL HERRIKO
BALIABIDE
PEDAGOGIKOEN 6.



2007ko udazkena

Gida liburuaz gain, Hik Hasi web atarian
izango duzu

Oraintxe berritua!!



2007-2008 IKASTURTEKO HEZKUNTZA ESKAINTZA

gizarte ekintza

hezkuntza



IKASI ETA ONDO PASA ALDI BEREAN?

Zientziaren kutxaGunean posiblea da.

zer nahi duzu bihar?



ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

Mikeletegi pasealekua, 43-45

20009 Donostia

943 012 478

www.miramón.org

reservas@kutxagunea.org